

# OROITIDAZKIA 2015



# EUSKALTZAINDIA

## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b>	<b>3</b>	<b>III. Egiturazko batzordeak</b>	<b>29</b>
<b>1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK</b>	<b>4</b>	III.1. Argitalpen batzordea	29
<b>I. Barne jarduera</b>	<b>4</b>	III.2 Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea	29
<b>II. Kanpoko jarduera</b>	<b>8</b>	III.3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak batzordea	29
<b>III. Bestelakoak</b>	<b>23</b>	III.4. <i>Erlea</i> aldizkaria	30
<b>2. AKADEMIA JARDUERA</b>	<b>24</b>	<b>IV. Resurreccion Maria Azkue sariak</b>	<b>30</b>
<b>I. Iker Saila</b>	<b>24</b>	<b>3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK</b>	<b>32</b>
I.1. Hiztegi gintza	24	<b>I. Egoitza eta ordezkariak</b>	<b>32</b>
I.2. Gramatika	25	<b>II. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua</b>	<b>33</b>
I.3. Dialektologia	25	<b>III. Onomastika zerbitzua</b>	<b>33</b>
I.4. Onomastika	26	<b>IV. Argitalpen zerbitzua</b>	<b>34</b>
I.5. Literatura	27	<b>V. Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua</b>	<b>35</b>
I.6. Ahoskera	28	<b>VI. Prentsa eta Komunikazio zerbitzua</b>	<b>35</b>
<b>II. Jagon Saila</b>	<b>28</b>	<b>VII. Jagonet zerbitzua</b>	<b>36</b>
II.1. Corpus batzordea	28	<b>4. HERRI-ADMINISTRAZIOAK ETA ERAKUNDEAK</b>	<b>37</b>
II.2. Euskalkien lantaldea	28	<b>5. WEB GUNEA ETA GIZARTERATZE LANA</b>	<b>45</b>
II.3. Sustapen batzordea	28	<b>6. BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA</b>	<b>48</b>
II.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)	29	<b>I. Balantzea</b>	<b>49</b>
		<b>II. Galdu Irabazien kontua</b>	<b>50</b>



Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria

Urtero bezala, aurten ere Euskaltzaindiak bere oroitidazkia prestatu du, 2015 urteari dagokiona. Ekonomilariak diotenez, azken urteotan gure gizartea hain gogorki jo eta astindu duen krisia leunduz joan da, eta beraren ondorio ekonomiko era sozialak gutxiago nabarmendu dira. Halere, lehenagoko eragin txar horien ondorioz, gure erakundeek aurretik espero zituzten diru-kopuruak baino gutxiago bildu izan dute, eta, beraz, gizarte ea kultur premietarako pentsaturik zeukaten dirua bera ere, horren arabera doitu behar izan dute.

Horrek, jakina, Euskaltzaindia bera behartu du bere premien artean lehentasun eta hobespen mailak egitera, zereginik ustez garrantzitsuenen alde, beste batzuk, garai hobeen esperantzan utzirik. Legeak agintzen diguna betatzean, Euskaltzaindiak aurkeztu dituen kontuak, beraz, egoera ekonomiko horren arabera prestatuak izan dira, eta horrela aitortu dute entzutegiko adituek. Eta horrelaxe behar ere bai, diru publikoari esker bizi den erakunde honek ezin joka baitezake bestela gizarteak emandako laguntza ekonomikoarekin.

2015eko jardunaldian ohiko lanak eta zereginak aipatzen dira, bai lker era Jagon Saisetakoak, lehendik zetozen proiektuei segida emanez: Euskaltzaindiaren Hiztegi batua, Euskararen Herri Hizkeren Atlas, hiztegi etimologikoa, zientzia eta teknika lexikoaren bilketa, etab., Gramatika-arauak, ebakerari buruzko gomendioak, literatura azterketak etab.

Euskaltzaindiak ahalegin handia egin du azken urteotan jendearekiko harremanak erraztu eta erabiltzeko. Eta izandako harrera ona ikusita, harrotasunez esan dezakegu, neurri batez hori lortu duela. Lehenago, euskarari buruzko galderak eta informazio-eskariak, euskaltzale banaka batzuen kezka hutsak baldin baziren, azken urteotan, jendearen interesa erabat handitu da, era hor, ze esanik ez, begien bistan dago, gure hizkuntzaren ofizialtasunak sorturiko interes berria, gure hizkuntzaren erabilera lehenago ukitu ere egiten ez ziren arloetara hedatuz. Akademiak, bere indarren eta baliabideen arabera, bai erakundeek eta bai jende arruntak ere egindako galderei ahalik eta ondoen erantzuten saiatzen da, era askotako informazioa eskainiz: Toponimia, pertsonen izen eta deituren grafiak, etab. Alde horretatik, benetan esan daiteke gaurko Euskaltzaindiaren lana, neurri batez, gizarteak egiten dizkion eskariak betetzen ahalegintzen dela, beti ere gure hizkuntza, gizarteko arlo ezberdinetan duintasunez eta egokiro erabilia ager dadin. Honekin batera, bereziki aipatzekoak dira Unibertsitate munduarekin egindako hitzarmenak, ikasleek euskaltzainekin batera ikerlan batzuk burutu ahal izateko.

Gure euskara, munduko hizkuntza gehien antzera ez da oso handia hitzunean, baina, halere, ahaleginak egiten ditu munduko beste hizkuntza akademiekin harremanak izaten, hitzarmenen bidez. Horrela, beste komunitate horien berri jakin eta bertakoek beren mintzairaren defentsan darabiltzaten jokabideak kontsideratzeko, ideia berrien bila.

Zeregina, beraz badugu, eta agian oraino denboraldi batez pairatu behar dugun baliabide-murrizketa gora behera, Euskaltzaindiak aurrera segituko du, beti ere, asmoz eta jakitez jokatzeko ahaleginduz.

## I. BARNE JARDUERA

Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Hizkuntzaren corpusaz arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere. Hortaz, bi sail ditu Euskaltzaindiak, Iker eta Jagon sailak, bere jardueraren baitan.

Akademiak ezagumendu ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublikan Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995). Bestalde, bai Gernikako Estatutuak -abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan-, bai eta Nafarroako Gobernuak ere -abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean-, euskarari dagokionez, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala aitortzen dute.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde, egitasmo eta lantaldeen bidez egiten da, eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, ezinbestekoak dira herritarrei nahiz erakundeetara erantzuteko.

Akademiaren egoitza Bilbon kokatua da. Bilbon egin ohi dira hileroko Osoko Bilkurak bai eta Zuzendaritzakoak ere, nahiz eta Donostian zein beste toki batzuetan ere tartekatzen diren. Normalean, hilean bi aldiz biltzen da Zuzendaritza. Erakundearen gobernuak, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari. Aurten 21 bilera egin ditu.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkarietan biltzen dira. Egitasmo eta batzorde akademikoen lan jarraipenaz eta bateratzeaz idazkariordea arduratzen da. Lan hauen guztien berri Zuzendaritzari eta kudeatzaileari ematen die, eta ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei behar diren txostenak prestatzen dizkie. Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen araberak, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu idazkariordeak, kudeatzailearekin batera.

## I.1. ERAKUNDEAREN 2015EKO EKINTZA NAGUSIAK

HILA	EGUNA	TOKIA	ZER
Urtarrila	30	Bilbo	Osoko Bilkura Ageriko Bilkura: hilberri-txostenak (*)
Otsaila	27	Gasteiz	Osoko Bilkura
Martxoa	27	Azkoitia	Osoko Bilkura Ageriko Bilkura: euskaltzain urgazle berriei diplomak ematea
Apirila	24	Bilbo	Osoko Bilkura Euskaltzaindiaren XIX. Barne Jardunaldiak
Maiatza	29	Donostia	Osoko Bilkura
Ekaina	26	Baiona	Osoko Bilkura
Uztaila	10	Mundaka	Jose Manuel Etxeitarren omenezko Ageriko Bilkura
	17	Donostia	Osoko Bilkura
Iraila	25	Baztan	<i>Nafarroa Oinez</i> dela eta, Osoko Bilkura Mariano Izetaren omenezko Ageriko Bilkura
Urria	16	Baiona	Piarres Larzabalen omenezko Ageriko Bilkura
	30	Donostia	Osoko Bilkura Koldo Mitxelenaren omenezko Ageriko Bilkura
Azaroa	20	Bilbo	XX. Jagon Jardunaldiak
	27		Osoko Bilkura
Abendua	18	Bilbo	Osoko Bilkura

(\*) Peli Martin, Jose Antonio Retolaza eta Xabier Aranburu euskaltzainen omenez.

## I.2. ADIERAZPENAK

### Euskaltzaindiaren adierazpena Iparraldeko kolegioen erreformaz

Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi duen kolegioen erreformak kezka sortu du Ipar Euskal Herriko euskarazko irakasleen artean. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, azaroaren 24an egindako bileran, kezka hori bere egin eta adierazpen bat onartu du. Honela dio:

“Euskaltzaindia eta kolegioetako erreforma

Azken aste horietan, beren kezkak adieraziak dituzte Iparraldeko euskarazko irakasleek, heldu den urtean indarrean jarri behar den erreformak arrangurak sorrarazi baititu. Euskaltzaindiak arrangura hori bere egiten du.

Euskararen egoera zaintzea, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak zaintzea du helburu Euskaltzaindiak. Horrengatik, Euskaltzaindia ez dagoke isilik erreforma horrek ekar litzakeen ondorio tzarren aitzinean, kolegioan euskarari erreformak eman nahi dion lekua mugatua izanen dela ohartzekoa baita.

Euskaltzaindiaren arabera, euskara ikasi nahi duten ikasleek (eta ikasleen gurasoek) segur izan behar dute hasitako euskarazko irakaskuntzak segida eta jarraipena osoa izanen duela 6.etik lizeoraino. Euskararen irakaskuntza maila batetik bestera ez dela desagertuko bermatu beharko du erreformak.

Aitzitik, mugatua izan gabe, euskararen irakaskuntzak engoitik indar berezi bat merezi du. Ikasleek euskara ikasteko, norberak bere euskara aberasteko, ahalbideak eman behar zaizkie Euskal Herriko ikasle guzietan, euskara ikasi nahi dutenaz geroz. Ikasleak eskolatik elebidun oso eta euskara hauta baten jabe izatea da gure helburua.

Ondoko puntuei erreformak erantzun baikorra eman beharko die:

- Ikasleek Batxilergoraino eta zikloka erdietsi behar dituzten gaitasunak, jakitateak eta kultura-helburuak zehaztea.
- Helburu horietara heltzeko programak, sail orokorrean nola Lanbide Heziketan, finkatzea.
- Ziklo bakoitzaren bukaerako ebaluazio eta egiaztatze moldeak antolatzea.

Helburuen eta edukien arabera ikastresnak osatzea eta biderkatzea.

Irakasleen oinarritzko formakuntza eta formakuntza jarraikia hedatzea.

Zeinahi irakasleren lana lagundu behar baldin bada, are gehiago euskarazko irakasleen lana laguntzekoa da, baldintza zailetan ari baitira urtetik urtera. Eta euskarazko irakasleek egiten duten hats luzeko lana Euskaltzaindiak txalotzen du. Ordu da ateria ikus dezaten hemendik aitzina.

Baina han-hemenka, Hezkuntza Nazionalarengandik berrikitan emanak izan diren erantzunek gure dudak eta kezkak ez dituzte batere ohildu edo urrundu.

Beraz, orain arte euskararen alde egin diren urrats guziaz ez daitezela suntsituak izan eta hemendik aitzina euskararen irakaskuntzak etorkizun argia izan dezan neurri erabakigarriak eskatzen ditu Euskaltzaindiak. Euskarak bere tokia eskolan ongi arautua izanen duela segurtatu behar du erreformak.

Gizarte mailan eta eremu orotako adierazpide eta tresna izan behar den euskara prestatzen eta gaitzen ari da Euskaltzaindia. Euskararen ofizialtasuna eskatzen dugu bide hori erraza izan dadin. Anartean, erran gabe doa euskararen irakaskuntzari laguntza emateko prest dagoela osoki Euskaltzaindia”.

Baiona, 2015-11-24

### I.3. IZENDAPENAK

#### Sei euskaltzain urgazle berri

Uztailaren 17an, Donostian eginiko Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak 6 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu. Hona hemen zerrenda, ordena alfabetikoan: Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Roberto González de Viñaspre, Kar-mele Jaio, Iñaki Martínez de Luna, Patxi Salaberri Muñoa eta Blanca Urgell.

### I.4. WEBGUNEA

#### Orotariko Euskal Hiztegiaren laugarren argitaraldia sarean

Apirilean Orotariko Euskal Hiztegiaren laugarren argitaraldia sarean jarri du Euskaltzaindiak. Argitaraldi berri honetan, lan nagusia Auspoa bildumatik ateratako corpus bateko adibideekin OEH osatzea izan da. Izan ere, arruntzat eta egunerokotzat jotzen ziren hitz, espide edo egitura gramatikal batzuen lekukotasun eskasaz konturaturik ziren behin baino gehiagotan.

Hutsune hauek betetzeko, Auspoa bildumaren digitalizazioak eskaintzen duen ondareaz baliatuz, herri literaturako adibideei OEHn sarrera handi-goia emateko asmoa hartu zen. Honetarako, 26 liburuko corpus bat osatzea erabaki zen, gehienbat herri kutsuko eta XX. mendeko obrez osatua, baina zaharragoei ere (hala nola, Frantziako Iraultzari edo Frantsesteari buruzko bertsoei) tarte eginez.

Berrikuspen horren ondorioz, sarrera, azpisarrera edo adiera berri asko (guztira, 1.310) daude argitaraldi honetan; gainerakoak ere adibide berriz aberastu dira, horien artean asko lehenago testuetatik ateratako lekuko-tasunik ez zutenak (azken hauek, guztira, 362).



The screenshot shows the website for the Orotariko Euskal Hiztegia. On the left is a navigation menu with items like 'Hiztegiak eta Corpusak', 'Hiztegi Batua', 'Hiztegi Batu Oinarriduna', 'XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa', 'Orotariko Euskal Hiztegia', 'Literatura Terminoen Hiztegia', 'Lexikoaren Behatokiaren Corpusa', and 'Hitz-elkarketa'. The main content area is titled 'Orotariko Euskal Hiztegia' and features a search box labeled 'Bilatu' with a dropdown menu for 'Bilatu nahi duzun forma:'. Below the search box is a 'Bilatu' button. To the right, under 'Ikus halaber:', there is a list of related items: 'Argibideak', 'Jaisteko gunea', 'Erreferentzia bibliografikoak (PDF, 543 kB)', 'Testu zerrenda (PDF, 130 kB)', and 'Laburdurak (PDF, 124 kB)'. At the bottom, there is a section for the '4. argitaraldia, 2015' with a description of the edition and a list of books.

#### Orotariko Euskal Hiztegiaren laugarren argitaraldia

#### Euskaltzaindiaren artxibo-funtsen katalogoa sarean

Euskaltzaindiak zaintzen dituen artxibo-funtsen katalogoa guztion eskura jarri du. Katalogo horretan hiru motatako funtsak biltzen dira: erakundearen beraren administrazio artxiboa (1919-1970); hainbat euskaltzain edo euskaltzaleren artxibo pribatuen funtsak; eta ikus-entzunezko artxiboaren funtsak. Sarean kontsulta daitezke guztiak, Akademiaren webgunean, Azkue Biblioteka eta Artxiboa atalean.

Akademiaren funtsak Azkue Biblioteka eta Artxiboan zaintzen eta kudeatzen dira. Orain arte, Akademiaren webgunearen atal horretan katalogoa bakarra zegoen kontsultagai: Azkue Bibliotekaren Katalogoa, hots, Euskaltzaindiaren bibliotekaren liburu eta aldizkarien katalogoa. Hemendik aurrera, aldiz, Akademiaren Artxiboaren Katalogoa ere ikusi ahal izango da.

Azaroaren 27an Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Pruden Gartzia Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariak aurkeztu dute Artxiboaren Katalogoa. Edukien garrantzia ez eze, Euskaltzaindiaren asmoa ere nabarmendu dute: izan ere, funts horiek guztiak publiko egitean, Akademiaren eta gizartearen arteko harremana sendotu nahi da. Bibliotekarekin harremanetan jarri eskariak edota iradokizunak egiteko mezua ere zabaldu nahi izan dute. Hain zuzen ere garrantzi berezia eman diote azken puntuari: norberak mota askotako bilaketak egin ditzake katalogo horretan Internet bidez, eduki batzuk ere zuzenean jaits daitezke, baina harreman pertsonala beti dago zerbitzu honen bihotzean, alegia, erabiltzaileak eska dezala informazioa eta epe labur batean erantzungo zaio.



Pruden Gartzia eta Andres Urrutia Artxibo-funtsen katalogoa aurkezten.

## ***Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren (EHHA) V. liburukia entzungai***

*Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren (EHHA) V. liburukia ipini du Euskaltzaindiak bere webgunean ikusgai eta entzungai. Bi eratara, hain zuzen ere. Liburukiaren testu osoa PDF formatuan irakur daiteke. Liburuki honen berrikuntza garrantzitsua da lekukoek emandako erantzunak entzun ere egin daitezkeelako.*

Akademiarentzat ahalegin handia eskatu du paperean dauden erantzun guztien entzunezko ordainak modu sailkatuan eta erraz kontsultatzeko eran ipintzeak.

## **I.5. HILBERRI-TXOSTENAK**

Urtarrilaren 30ean, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Bilbon, Akademiaren egoitzan, Peli Martin euskaltzain urgazlea, Jose Antonio Retolaza euskaltzain ohorezkoa eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazlea omentzeko. Txostengileak Manu Ruiz Urrestarazu, Luis Baraiazarra eta Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak izan dira. Azken txosten hori Xabier Kintanak irakurri du, Iriondo kanpoan izan da eta.

Ekitaldian zehar, musika izan dute lagun bertaratutakoek. Ander Berrojalbizek biolina jo du eta Maider Lopezek biola.



Euskaltzainak eta omenduen senideak

## II. KANPOKO JARDUERA

### II.1. EUSKARAZKO TESIEEN IV. KOLDO MITXELENA SARIAK

Urtarrilaren 16an Bilbon eginiko ekitaldian, Euskarazko Tesien IV. Koldo Mitxelena sariak banatu dituzte Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak. Sariok euskarazko ikerketa bultzatzea eta sustatzea dute xede, bi urterik behin deitzen dira eta bost jakintza-arlotan banatzen dira: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak eta Artea eta Giza Zientziak. Saridunak honako hauek izan dira:

**Zientziak:** Ostaizka Aizpurua Arrieta. Doktorego tesia: “Myotis capaccinii saguzar hatz-luze arrantzalea: aldaketa trofikorako gako ekologikoak, sentso-rialak eta jokabidezkoak”.

**Ingeniaritza eta Arkitektura:** Igor Ayesta Ereño. Doktorego tesia: “Polimerozko zuntz optiko aktiboen ikerkuntza, laser eta anplifikagailu gisako funtzio-namendua hobetzeko”.

**Osasun Zientziak:** Oihane Jaka Irizar. Doktorego tesia: “LGMD2A gerrietako muskulu-distrofiaren adierazpen-analisiaren aplikazioa gaixotasunaren diagnostikoan, eta sagu-ereduan eta giza eredu zelularretan oinarritutako karakterizazio fisiopatologikoan”.

**Gizarte eta Lege Zientziak:** Urtzi Ruiz de Azua Ormaza. Doktorego tesia: “DBHko ikasleen euskararekiko jarrera linguistikoak, motibazioa eta errendimendu akademikoa”.

**Artea eta Giza Zientziak:** Ibon Egaña Etxeberria. Doktorego tesia: “Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritikaren analisia (1975-2005)”.

Sari hauen bitartez, EHUK eta Euskaltzaindiak euskarazko tesien ekarpen bikoitza goraipatu nahi dute, batetik jakintzaren arloa zabaltzen laguntzen dutelako, eta bestetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere guttiz lagungarriak direlako.



UPV-EHUko eta Euskaltzaindiko ordezkariak saritutako tesien egileekin batera.

### II.2. EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASAREN VI. LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Otsailaren 27an, Gasteizen, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VI.* liburukia aurkeztu du Euskaltzaindiak. Aurrekoak bezala, EHHA-ren liburuki berria Laboral Kutxaren babesarekin argitaratu du Akademiak. Seigarren liburukiak aditz morfologia lantzen du eta gehien erabiltzen diren aditzaren forma jokatuak aztertzen ditu. Liburuarekin batera, edukia PDF formatuan jasotzen duen CD-ROM bat kaleratu da.

Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Xabier Egibar Laboral Kutxako Negozio Garapenaren Areako zuzendariak, Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHaren arduradun teknikoak. Guztiok EHHA egitasmoaren emaitzak jendearen eskura jartzeak duen garrantzia azpimarratu dute.



Aditz nagusiak, laguntzaile direnak, dira batez ere aztergai liburuki honetan: izan eta \**edin* aditz laguntzaileak; \**edun* eta \**ezan* aditz laguntzaileak; aditz trinkoak; eta aditz alokutiboak. Adolfo Arejita zuzendari akademikoak azpimarratu bezala, “tradizio idatziarekin konparazioak egitera gonbidatzen gaituzte liburukiko emaitza batzuek. Izan ere, tradizio idatziko aditz morfologiak, dialektoetan erabili izan denak ere, egungo hizkeretan entzuten denarekin baditu kidetasunak puntu batzuetan, baina diferentzia garbiak ere bai beste anitzetan”.

Atlasaren VI. liburukiak 259 galderari emandako erantzunak biltzen ditu.



Adolfo Arejita, Andres Urrutia, Xabier Egibar eta Xarles Videgain

### II.3. EUSKALTZAINDIA AZKOITIAN, EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN 250. URTEURRENEAN

Martxoaren 27an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena dela-eta, Azkoitian izan da Euskaltzaindia. Udalarekin batera, elkartearen omenezko ageriko bilkuran parte hartu du Akademiak. Bertan, Urrategi Alberdi Azkoitiko alkatea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako presidentea mintzatu dira.

Ageriko bilkuran, bi erakundeok errespetua eta aitortza adierazi diote elkarri, Azkoitiko alkatea ondoan zutela.

Ondoren, Bergarako hainbat musikaririk eta artistak egindako Peñafloardako Kondearen *Mozkorra parregarri* operaren zati batzuk eskaini dituzte. Kantariak Gorka Unamuno, Marije Ugalde, Julen Alberdi, Karlos Etxaniz eta Fran Martinez izan dira eta Leo Juaristi piano jotzailea; Jose Migel Elkorok egin du aurkezle lana.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta Euskaltzaindiak opari bana egin diote elkarri. Akademiak Elkarteari hiru liburu eman dizkio: Axularren *Gero* eta Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ale bi: batzuk, jatorrizko testuaz gain, gaztelaniazko, frantsesezko, ingelesezko, alemanezko eta italierazko itzulpenak biltzen ditu; bestea, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitxuaz eta txineraz ere irakur daiteke. Biak argitaratuak ditu Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzarrearekin batera.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, aldiz, erakundearen Estatutuen lehenengo artikulua jasotzen duen ororigarri bat eman dio Euskaltzaindiari.



Azkoitiko herri-agintariak, Euskalerrriaren Adiskideek elkarteko kideak eta Euskaltzaindiko kideak

## II.4. "DENON ESKU DAGO EUSKARA BIZIARAZTEA" MINTEGIA

Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimenez, apirilaren 17an "Denon esku dago euskara biziaraztea" mintegia egin da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Mintegiaren xedea euskararekiko zenbait alderdi aztertzea izan da, XIX. mendeko azken aldetik abiatuta.

Izan ere, aurten bete dira 150 urte Sabino Arana jaio zela. Hori dela eta, XIX. mendearen amaiera eta XX.aren hasiera kontuan hartu dituzte antolatzaileek, eta bitarte horretan zeuden gure hizkuntzarekiko aurreiritzi eta jarrerak aipagai izan dituzte. Era berean, euskarak "orain dituen ahultasun eta mehatxuak nahiz irekitzen zaizkion aukerak" ere hizpide izan dituzte.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioako presidentek eta Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak hasiera eman diote egunari, eta mintegiaren helburua azaldu.

Ondoren, mintegia hasi da. Hizlariak honako hauek izan dira:

- Joseba Agirreazkuenaga: Euskararen aldeko eta aurkakoak, hizkuntza ofizialen garaian (1794-1919). Euskal hiztunen paradisua museoan.
- Igone Etxebarria: Sabino Arana eta euskara: ideia ardatz batzuk.
- Mikel Zalbide: XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan.
- Xabier Kintana: Euskararen batasuna XXI. mendean indarberritzen segitzeko antzematen diren ahuleziak, mehatxuak eta aukerak.



Mikel Zalbide, Juan Mari Atutxa, Andres Urrutia, Igone Etxebarria, Xabier Kintana, Miren Josune Ariztondo, Erramun Osa eta Joseba Agirreazkuenaga.

## II.5. EUSKALTZAINDIA KORRIKAN

Euskaltzaindia Korrika euskararen aldeko lasterketan izan da. Martxoaren 29an 19. Korrika Bilbora heldu da eta bost orduko ibilbidea egin du Enekuritik Areatzaraino. Akademiak lekukoa eramaten du 2.498. kilometroan, Hurtado Amezaga kalean hasita.

Adolfo Arejitak, Xabier Kintanak eta Erramun Osak eramaten duten lekukoa, erakundearen izenean. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearen kideen eskutik hartu dute, eta Ikastolen Federazioko ordezkariari eman diete. Ondoren Kontseiluak hartu du, eta, beti bezala, AEK-k egin du azken kilometroa.

Lekukoaren barruan zegoen mezua Lorea Agirre *Jakin* aldizkariko zuzendariak egin zen, eta berak irakurri du Bilboko Areatzan.



Xabier Kintana, Adolfo Arejita eta Erramun Osoa lekukoa eramaten Bilboko kaleetan.

## II.6. EUSKALTZAINDIA IZEN GEOGRAFIKOEN BATZORDE ESPEZIALIZATUAK ANTOLATUTAKO IV. JARDUNALDIAN

Apirilaren 14an, Euskaltzaindiaren ordezkariak izan da Izen Geografikoen batzorde espezializatuak (Izen geografikoen adituen batzordea) antolatutako IV. jardunaldian, Valladoliden, “Toponimia gaur egun” izenburupean. Akademiaren aldetik, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuaren arduradunak hartu du parte eta ahozko bilketaren inguruko azalpenak eman ditu.

Goiburuak berak azaltzen duen bezala, toponimiaren alor banaezinak aztertu nahi ziren jardunaldian, kulturala eta praktikoa, alegia.

Alde batetik, toponimiak balio kulturala du eta horrela aitortu diote Nazio Batuek. Beste alde batetik, administrazioek datutegietan duten informazio georreferentziatua ere bada.

Toponimoak ondare ez-materiala dira eta hizkuntzen zati izateaz gain, hizkuntzen historia ere gordetzen dute beren baitan. Era berean, historiaren lekuko dira eta informazio baliagarria ematen diete historialariei. Europako INSPIRE direktibak zehazten du toponimiak datutegi informatikoetan txertatu behar direla metadatuaz lagunduta, egitura komun batean.

## II.7. EUSKALTZAINDIAREN *EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASARI* (EHHA)BURUZKO ERAKUSKETAK BEASAINEN ETA PORTUGALETEN

Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) ezagutaraztea helburu, “Euskara ibiltaria” erakusketa egin da 2015ean, Beasainen eta Portugaleten.

Beasainen, Udalarekin eta Laboral Kutxarekin batera antolatu du Euskaltzaindiak eta maiatzaren 28tik ekainaren 5era arte egon da zabalik, Igartza Jauregian. Inaugurazio ekitaldi bi egin dira: goizean, Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHako teknikariek bi hitzaldi didaktiko eskaini dizkiete Beasaingo ikastetxeetako ikasleei, eta arratsaldean, inaugurazio ekitaldi nagusian, erakusketa antolatu duten hiru erakundeetako ordezkariak hartu dute parte: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHaren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Xabier Egibar Negozio Garapenaren Arloko zuzendariak; eta Beasaingo Udalarenean, Koldo Agirre alkateak.

Ekitaldian, egitasmoa hasieratik bultzatu duen Laboral Kutxako Juan Cidek argizaiola jaso du euskaltzainburuaren eskutik. Izan ere, Cidek erretiroa hartu du; hori dela-eta, urteetan egindako lana eskertu nahi izan diote Akademiak eta Laboral Kutxak.

Portugaleten, aldiz, erakusketa azaroaren 17tik abenduaren 17ra bitartean egon da zabalik, Santa Klara Kulturtegian, Akademiaren, Laboral Kutxaren eta Portugaleteko Udalaren ekimenez. Inaugurazio ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Euskaltzaindiaren izenean, Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHaren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Pello Ugalde Laboral Kutxako Lurralde zuzendariak; eta Portugaleteko Udalarenean, Estibaliz Freije Kultura zinegotziak.

Erakusketak iraun bitartean, Portugaleteko ikasleekin hainbat bisita gidatu egin dituzte Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHako teknikariek.



EHHako teknikariak Beasainen emandako hitzaldian.

## II.8. EUSKALTZAINDIA "MONUMENTA LINGVAE VASCONUM" II. JARDUNALDIETAN

Maiatzaren 13, 14 eta 15ean, "Monumenta Linguae Vasconum" II Jardunaldiak egin dira Gasteizen, EHUko Letren Fakultatean. Euskaltzaindiak parte hartu du. Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria izan da Akademiaren ordezkaria eta hilaren 14an mintzatu da, "Azkue Biblioteka eta Artxiboa, euskal filologoen erreferentziagune: artxibo-funtsak" gaiaren inguruan.

Joseba Lakarra euskaltzainak zuzentzen duen *Monumenta Linguae Vasconum* EHUko ikerketa taldeak antolatu ditu izen bereko jardunaldiak. Lakarra bera izan da hizlarietako bat eta, berarekin batera, beste euskaltzain batzuek hartu dute parte: Aurelia Arkotxa euskaltzain osoak eta Ricardo Gómez, Gidori Bilbao, Josu K. Bijuesca eta Iñaki Camino euskaltzain urgazleek. Julen Manterola "Euskal Hiztegi Etimologikoa" eta Ane Loidi "Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak" egitasmoetako teknikariak ere hizlari izan dira jardunaldiotan.

## II.9. PERTSONA ITSUENTZAT EGOKITUTAKO HIRU LIBURU

Ekainaren 24an, Euskaltzaindiak eta ONCEk bi erakundeen arteko elkarlaren lehen emaitzak aurkeztu dituzte: *Erlea* aldizkariaren azken bi zenbakiak eta Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua, pertsona itsuentzat edota ikusmen urritasunak dituzten pertsonentzat egokituta. Izan ere, 2014ko azaroan, Euskaltzaindiak eta ONCEk lau urteko iraupena duen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Helburua Euskaltzaindiko katalogoetako obra batzuk Braille sistemara edota itsuek soilik erabiliko dituzten beste formatu batzuetara egokitzea zen.

Aipatu lanok bi euskarritan eskaintzen dituzte: Braille alfabetoan eta audio bidezko Daisy sisteman. Horiek dira, hain zuzen ere, itsuek edo ikusmen urritasuna duten pertsonen liburuak irakurtzeko dituzten bi moduak.

Aurkezpena honako hauek egin dute: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Kintana idazkariak; eta ONCErean, Basilio San Gabriel lurralde-ordezkariek eta Iñigo Arbiza komunikazio-buruak.

Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea ere bertan izan da. Izan ere, Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak *Linguae Vasconum Primitiae* liburua- ren bi edizio kaleratu dituzte, lankidetzan. Horren ondorioz, euskaraz gain, hamaika hizkuntzatan irakur daiteke: gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez, italieraz, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitxuaz eta txineraz.

Ekitaldiaren amaieran, Etxeparek 1545ean idatzitako hitzei ahotza jarri die Ander Cornejo mutil itsuak: "*Euskara, jalgi hadi kanpora*".

## II.10. MUNDAKAN, JOSE MANUEL ETXEITAREN OMENEZ

Uztailaren 10ean, Mundakako Udalak eta Euskaltzaindiak Jose Manuel Etxeita omendu dute, bere heriotzaren 100. urteurrenean. Omenezko jardunaldia Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak antolatu du, Jose Manuel Etxeitaren ekarpen literarioa gogora ekartzeko. Jardunaldi horren xedea Jose Manuel Etxeitaren unibertso pertsonalera eta unibertso literarioa hurbiltzea izan da.

Jon Kortazarrek, Euskal Literaturako katedradun eta Literatura Ikerketa batzordeko kideak, “Jose txo eta Etxeitaren biografia” hitzaldia eskaini du. Kortazarrek hainbat artikulu eta argitalpenetan aztertu du Etxeitaren ekarpena, eta 1999. urtean *Jose Manuel Etxeita* (BBK, 1999) liburua argitaratu zuen.

Ana Toledok, euskaltzain eta Literatura Ikerketa batzordeburuak, “Ardibasoetik Ardibasorako joan-etorria” hitzaldia eskaini du, Etxeitaren eleberrigintzara hurbilduz. Ana Toledok XX. mendearen lehen erdian euskal eleberrigintzan eginiko urratsak aztertu izan ditu sarri, eta hitzaldi honetan ere Etxeitaren ekarpena testuinguru horretan kokatu du.

Bestalde, Etxeitaren testuen irakurraldia eskaini du Gurutze Beitia aktoreak. Hitzaldietan zehar tartekatu diren testu-irakurketa horiek, Etxeitaren ekarpena ezagutzearekin batera, Etxeitaren sormen-lana ere lehen eskutik ezagutzeko aukera eman dute.

## II.11. BAZTANEN, NAFARROA OINEZ FESTAREKIN BAT EGINEZ

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin, eta irailaren 25ean Baztanen izan da Euskaltzaindia. Goizetik hasita, hainbat ekitaldi egin ditu: goizean, Euskaltzaindiaren Osoko bilkura egin da, Baztango Udaletxean, Elizondon. Alkateak eta zinegotziek harrera egin die te euskaltzainei. Ondoren, euskaltzainek ikastolako bi egoitzak bisitatu dituzte. Arratsaldean, Mariano Izeta idazle, bertsozale eta ohorezko euskaltzaina omendu dute, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Mariano Izeta omentzeko ekitaldia Euskaltzaindiak eta Baztan Ikastolak elkarlanean antolatu dute eta Arizkunenea Kultura Etxean egin da.



Euskaltzainak Baztan Ikastolako ikasle eta irakasleekin batera.

Elena Zabaleta Baztan ikastolako lehendakariak hasiera eman dio ekitaldiari eta ondoren Paskual Rekaldek hartu du hitza. Mariano Izetaren jaiotzaren mendeurrenaren karietara antolatu den ekitaldian, Izetaz gain, Baztango bi euskaltzain urgazle gogora ekarri ditu: Joxe Azkarate Etxandi eta Blas Fagoaga Ariztia.

Bion aipamena egin ondoren, Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria izan du hizpide, “Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak *Dirua galgarri* eleberrian” hitzaldiaren bitartez. Besteren artean, gogoan izan du Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak berrargitaratu zutela liburua, urtearen hasieran. 2015eko edizio honetan, bi artikulu bildu dira: bata, “Mariano Izeta, zertzelada biografikoak”, Jon Abrilek egin, eta bertzea, “Idazlanaren gaineko ohar zenbait”, Rekaldek berak prestatua. Horretaz gainera, Rekaldek jatorrizko testua euskara batura egokitu du. Baztango Udaleko Kultura eta Euskara zinegotziak eta euskaltzainburuak hitzaurre bana idatzi dute.

Amaitzeko, “Mariano Izetaren kontuak gure ikasgelan” deituriko kontakizuna aurkeztu dute Baztan ikastolako ikasleek, eta aurtengo festaren kanta abestu dute.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzek amaiera jarri diote ekitaldiari.

## II.12. "EUSKAL LITERATURA XX. MENDEAN. 25 URTE" ERAKUSKETA

Urriaren 2an "Euskal literatura XX. mendean. Jon Kortazar. 25 urte" izeneko erakusketa zabaldu da Euskaltzaindiaren egoitzan.

25 urte bete dira Kortazarrek izen bereko liburua plazaratu zuenetik eta urteurrena ospatzeko, Mundakako idazle, irakasle eta euskaltzain urgazlearen lanari buruzko erakusketa antolatu da.

*Literatura vasca: siglo XX* liburua 1990ean argitaratu zen, gaztelaniaz, eta 2000. urtean euskaraz, *Euskal literatura XX. mendean* izenarekin. 25 urte hauetan, 7 edizio kaleratu dira eta horien guztien aleak erakutsi dira. Jon Kortazarren lanaren beste alderdi batzuk ere izan dira ikusgai: beste liburu batzuen aipamenak, itzulpenak, Lauaxetari buruz egindako ikerketak eta argitalpenak, argazkiak, oroigarriak edota objektu batzuk -Kortazarrek irabazitako Rosalía de Castro eta Lauaxeta Sarien ikurrak, Jose Hierro poetak Kortazarri egindako karikatura- besteak beste.

Bestalde, erakusketa hobeto ulertze aldera, liburuxka bat argitaratu da. Bertan, Xabier Etxaniz eta Kirmen Uribe idazleen artikulua bana jaso da, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. "Gure letretan murgildurik" da Etxanizena eta "Kritikariaren eskua" Uriberena.

Euskaltzaindiak Mungiako Udalaren laguntza izan du erakusketa antolatzeko.



Jon Kortazar bere liburuaren omenezko erakusketan.

## II.13. HIZTEGI JURIDIKO-PARLAMENTARIOA EGINGO DUEN LANTALDEA ERATU DA

Urriaren 14an Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa egingo duen lantaldea eratu da Eusko Legebiltzarrean. Taldeak parlamentu-lexikoa bateratzea du xede, ondoren Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa osatu ahal izateko. Hiztegi horretan zuzenbide parlamentarioaren alorrean erabiltzen diren terminoak jasoko dira.

Lantaldea Euskaltzaindiak koordinatuko du eta Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko, Eusko Jaurlaritzaren IVAPeko eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietako hainbat kidek osatzen dute. Egitasmoa landuko duen taldea eratzeko ekitaldian Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea eta Andres Urrutia euskaltzainburua izan dira.

Lantaldearen partaideak hauek dira: Gotzon Lobera, koordinatzailea; Eneko Oregi, idazkaria (IVAP); Jesus Mari Agirre (Eusko Legebiltzarra); Mikel Iriarte (Nafarroako Parlamentua); Maite Imaz (IVAP); Juan Luis Derteano (Bizkaiko Batzar Nagusiak); Miren Irigoien eta Aitziber Eizagirre (Gipuzkoako Batzar Nagusiak); Ainhoa Sagardui eta Xabier Zalbide (Arabako Batzar Nagusiak); eta Miriam Urkia, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldeko burua.

Lantaldeak bi fasetan egingo du bere beharra: batetik, erakundeetako ordezkariak aurkeztutako datu-glosarioekin egingo du lan eta horretarako Euskaltzaindiak behar duen laguntza teknikoa eskainiko die; bestetik, adituen proposamenak aztertuko ditu eta horren gaineko erabakiak hartuko ditu.

Hori eginda, oinarrizko hiztegi juridiko eta parlamentarioa egingo da eta Euskaltzaindiaren Osoko bilkurari aurkeztuko zaio. Azkenik, Euskaltzaindiak onartu ondoren, hiztegia aurkeztuko dute eta argitalpen elektronikoa bitartez hedatuko dute.

## II.14. PIARRRES LARZABALEN OMENEZKO JARDUNALDIA BAIONAN

Urriaren 16an, Akademiaren Literatura Ikerketa batzordeak antolatua, "Piarres Larzabal sortzearen mendeurrena (1915-2015)" jardunaldia egin du Euskaltzaindiak Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean. Jardunaldiak oso harrera ona izan du eta Unibertsitateko aretoa jendez bete da.

Jardunaldian Larzabalek kulturgintzan eginiko ekarpenaz hausnartu da eta bereziki bi ildo nagusi jorratu dira: "Larzabalek Iparraldeko ondare literarioan duen tokiaz eta Larzabalen pedagogiaz, euskal literaturan izan duen eragin handiaz". Larzabalen bizitzaz ere mintzatu da.

Lau hitzaldi eman dituzte: Daniel Landart antzerkigile eta euskaltzain urgazleak Larzabalen biografiaz hitz egin du; Ixabel Etxeberria antzerki ikertzaileak Larzabalen antzerkigintza aztertu du; Antton Luku antzerkigile eta antzezleak "Piarres Larzabal eta taulagaina" gaia jorratu du; eta Patri Urkizu irakasle eta Literatura Ikerketa batzordeko kideak "Piarres Larzabalen antzerkiaren harreara Hego Euskal Herrian" izeneko mintzaldia eman du.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Ana Toledo Literatura Ikerketa batzordeko buruak hasiera eman diote jardunaldiari eta jardunaldiaren helburua azaldu.

## II.15. ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

2015ean ere Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak. "Burdina" izenburupean, ekitaldi ugari egin dira urrian, Bizkaiko herri askotan. Euskaltzaindiak "Burdina eta euskara" izeneko hitzaldi zikloa antolatu du.

Akademiak hiru hitzaldi eman ditu: urriaren 20an Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduraduna burdinak gure geografian utzi duen lorratzaz mintzatu da: meategiak, burdinolen izenak... Hitzaldiaren izenburua "Burdinaren lorratza euskal toponimian" izan da.

Bigarren hitzaldia hilaren 22an izan da. Egun horretan, "Olak eta burdintza euskal literaturan" hitzaldia eman du Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak. Burdinak euskal literaturan izan duen eragina eta utzi duen arrastoaz hitz egin du.

Urriaren 29an zikloaren azken hitzaldia izan da, "Norteko ferrokarrila: tren bertsolarien ahotan" izenburupean. Mikel Aizpuru EHUko irakasleak bertsolariak nola ikusten zuten trenbidea aztertu du, Oihana Iguaran bertsolariaren laguntzarekin.



## II.16. 2015EKO XALBADOR EGUNA

Ohi den legez, Urepelen (Nafarroa Beherea), ospatu da Xalbador Eguna, Fernando Aire *Xalbador* oroitzeko. Urriaren 10ean eta 11n izan da ekimena eta Xalbadorrekin batera, beste bi pertsona omendu dituzte: Ximun Ibarra *Zubikoa* eta Juan Joxe Eizmendi *Errezil* bertsolariak.

Xalbador Eguna antolatzen duten Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak egitarau oparoa prestatu dute. Kalakan taldearen kontzertuarekin hasi da Xalbador Eguna, urriaren 10ean. Igandean, aldiz, Xalbadorren etxolara mendi ibilaldia egin dute eta gero meza nagusia izan da; bertan, omenduekin batera, Emile Larre ere izan dute gogoan. Ondoren, Zubikoa eta Errezil bertsolariei buruz mahai-inguru bat egin da. Bertso saioan, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe* eta Jose Luis Gorrotxategi aritu dira.

Urepeleko Herriko Etxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadi Irratieren laguntzarekin antolatu da egitaraua.



Ezkerretik eskuinera: Joxe Mari Iriondo, Jose Luis Gorrotxategi, Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe*, Amets Arzallus eta Sebastian Lizaso.

## II.17. AHOSKERA JARDUNALDIA

Urriaren 23an Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak antolatuta, Ahoskera Jardunaldia egin du Akademiak Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldian, ahoskeraren garrantzia azpimarratu da eta arlo guztietako eragileen hausnarketa eta parte hartzea aldarrikatu da. Ahoskera batzordeko txostenean jaso den bezala, “erabilera esparru guztietan normal izan nahi duen hizkuntzaren ibilbidean aurrera egiteko parte hartzaile guztiek elkar hartu behar dugu: arau-emaile, ikasle, irakasle, kazetari, antzezle, politikari...”.

Jardunaldiaren xedea ahoskeraren inguruko gogoeta egitea izan da: behar al du euskarak ahoskera estandarrik? Ba al dute euskalkiek lekurik ahozko euskara batuaren ondoan? Zer da hizkera estandar bat? Ahoskera irakatsi behar da? Ikas daiteke? Horiek eta beste hainbat galdera jarri dira mahai gainean.

Miren Azkarate euskaltzain oso eta EHUko irakasleak, Iñaki Camino euskaltzain urgazle eta EHUko irakasleak, Julia Marin antzerki itzultzaile eta komunikazio teknikan irakasleak eta João Veloso fonologialari eta Portoko Unibertsitateko irakasleak hitzaldi bana eman dute. Ahoskera batzordeak landutako txostena ere aurkeztu da.

Xarles Videgain euskaltzainburuordeak eta Miren Lourdes Oñederra Ahoskera batzordeko buruak hasiera eman diote egunari eta jardunaldiaren helburua azaldu.



Ahoskera jardunaldia

## II.18. UPV/EHU-KO HITZARMENA, IKASLEEK MASTER AMAIERAKO LANAK ETA DOKTOREGO TESIAK EUSKALTZAINDIAN EGIN AHAL IZATEKO

Euskaltzaindiak eta UPV-EHUK lankidetzeta-hitzarmen berria sinatu dute urrian. Hitzarmen horren bitartez, bi erakundeon arteko elkarlanean esparru berri bat zabaldu da, Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako master eta doktorego programan matrikulatutako ikasleen master amaierako lanak edo doktorego tesiak zuzentzeko xedearekin.

Hala, bi erakundeon arteko engaiamenduari esker, Euskaltzaindiak Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia master eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten beren zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkarietan.

Izan ere, indarrean dagoen arautegiaren arabera, masterretan kolabora dezakete unibertsitateko irakasleak ez diren profesional edo ikertzaileak, betiere masterreko Batzorde Akademikoak gainbegiratzen badu eta ikertzaileak erakundearen baimena lortuta. Horrek esan nahi du, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, Euskaltzaindiko kideek parte hartu ahal izango dutela ikasle edo doktoregaien prestakuntza jardueretan.

2010eko maiatzean Euskaltzaindiak Euskampus proiektuari atxikitze-ko hitzarmen bat sinatu zuen. UPV/EHUK, Tecnaliak eta DIPCK bultzatutako proiektu horrek Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa dauka, Espainiako Hezkuntza Ministerioak emana, eta gaur egun haren garapena Euskampus Fundazioaren ardurapean dago. Fundazioa Euskampus proiektuari atxikitako erakundeen bizkarrezurra da, eta lehendik zeuden lankidetzeta harremanak sendotzeaz gain, elkarlanerako esparru berriak ere eratzen ditu. Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK abian jarritako elkarlanerako esparru berria.

Euskaltzaindian euren lana egin nahi duten master eta doktorego ikasleak bi erakundeotako ordezkari banarekin egin beharko dute lan: batetik, EHUKo tutore akademikoarekin, eta bestetik, lanaren zuzendari arituko den Euskaltzaindiko kidearekin.

Era berean, Euskaltzaindiak erakundeari loturiko begirale bat izendatuko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, praktika programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin ados jarrita.

Hitzarmena Iñaki Goirizelaia EHU errektoreak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute. Eurekin batera Nekane Balluerka UPV/EHUKo Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea eta Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburua izan dira.



Adolfo Arejita, Iñaki Goirizelaia, Andres Urrutia eta Nekane Balluerka.



## II.21. EUSKALTZAINDIK ETA EUSKO LEWEBILTZARRAK "EUSKARA... PLAZAN!" EKITALDIA EGIN DUTE

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak "Euskara... Plazan!" ekitaldia egin dute abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. Bertan, bi erakundeok beste sei hizkuntzetara (poloniera, hebreera, finlandiera, nederlandera, georgiera eta errusierara) ekarri duten Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua aurkeztu dute eta Koldo Mitxelenari gorazarre egin zaio.

Ekitaldia EITBren laguntzaz gauzatu da Eusko Legebiltzarrean eta zuzenean eskaini da ETBtik.

Antton Valverderen musikaren laguntza zutela, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana euskaltzain eta Etxepareren liburuaren edizioaren arduradunak hartu dute hitza.

Ondoren, *Kontrapas* poema irakurri dute liburuak bildu dituen hizkuntzetan: nederlanderaz, finlandieraz, georgieraz, errusieraz, polonieraz eta hebreeraz. Ellen Elfrink, Joseba Ossa, Gotxa Todua, Irakli Akhvlediani, Dorota Krajewska eta Rachel Fuks Feinstein izan dira ahotsa jarri dutenak. Euskaraz Ander Cornejo mutil itsuak egin du eta Braille alfabetoan argitaratuta dagoen liburuan irakurri du, 2015eko ekainean Euskaltzaindiak eta ONCEk kaleratu zuena.

Bestalde, ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutiak eta Bakartxo Tejeriak Eusko Legebiltzarrearen ikurraren irudia duen oroigarria, Nestor Basterretxeak egindakoa, eman diote Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Ondoren, irudi batzuk eta bi bideo ikusi ahal izan dira: Mikel Urretabizkaiak Koldo Mitxelenari buruz zuzendutakoa, EITBk propio egin ahal izan duen ekitaldirako, eta Imanol Epeldereren *Etxepare Rap* proiektuaren *Linguae Vasconum Primitiae*ren hitzaurrearen rap abestiaren bideoa.



*Kontrapas* poema irakurri zuten lagunak.

## II.22. EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA MAULEN AURKEZTU DA

Azaroaren 21ean Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA) aurkeztu du Euskaltzaindiak Mauleko Herriko Etxean. Honako lau euskaltzainek egin dute aurkezpena: Xarles Videgain buruorde eta EHHAren arduradunak, Jean-Baptiste "Battittu" Coyos Jagon sailburuak, Jean-Louis Davantek eta Txomin Peillenek.

Ekitaldian egitasmoari buruzko argibideak eman dituzte. Kaleratu diren Atlasaren liburuki guztiek Laboral Kutxaren babesak izan dute.

## II.23. XX. JAGON JARDUNALDIA, "EUSKARAREN BIZIBERRITZEA EUSKAL HERRIKO HIRIBURUETAN"

Azaroaren 20an, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatua, XX. Jagon Jardunaldia egin du Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan, "Hedabideak euskararen sustapenean" gaiaren inguruan. Jardunaldiotan euskal komunikabideek euskararen sustapenean jokatzen duten rola aztertu da.

Gaia hiru multzotan aztertu da:

- Hedabideak eta hizkuntza politika. Patxi Baztarrikak, Mikel Arregik eta Bernadette Soulék hartu dute parte eta Andoni Egaña izan da moderatzailea.
- Hedabideen egitasmoak. Alaitz Artolazabal, Martxelo Otamendi, Iñaki Guridi eta Jose Luis Aizpurua izan dira hizlariak eta Marijo Deogracias moderatzailea.
- Hedabideen kanpoko begirada. Mahai-ingurua egin da, solaskide hauekin: Leire Palacios, Beatriz Zabalondo, Aingeru Epaltza eta Alberto Barandiaran. Aitor Zuberogoiak moderatu du.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jean-Baptiste "Battittu" Coyos Jagon sailburuak hasiera eman diote egunari.

Bestalde, jardunaldiaren amaieran, *Euskera* agerkariaren zenbaki berriak aurkeztu dituzte Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak: *Euskera 2014, 59-1* eta *Euskera 2014, 59-2*. Lehenak, Aka-

demiaren 2014. urteko lanak eta bitzta akademikoa biltzen ditu, eta bigarrean, aldiz, ikerketa-lanak, liburu-aipamenak eta ekarpen teorikoak jaso dira.



XX. Jagon jardunaldiak Euskaltzaindiaren egoitzan.

## II.24. AZOKAK

### Sarako Liburu Azokan

2015eko apirilaren 6an, Pazko astelehenean, Sarako Idazleen Biltzarra egin da. Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztu ditu: 1) *Bahnar deitu Salbaiak* (Pierre Dourisbourek 1870ean idatzi zuen *Les Sauvages Bahnars* eta 1929an Jean Elissalde *Zerbitzarik* itzuli zuen; Azokan Henri Duhauk prestatutako edizio berria aurkeztu da; 2) *Mongongo Dassanza: Albaitaritzako idazlanak (1692-1892)* (Txomin Peillenek paratua); 3) *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942* (Natalia Zaïkak idatzia).

Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duten biltzarra herriko kiroldegian egin da, urtero legez. Aurkezpen ekitaldian hauek izan dira: Henri Duhau, Txomin Peillen eta Xarles Videgain, azken hau Natalia Zaïkaren lana aurkezten eta Euskaltzaindia ordezkatzeko. Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea den Frantxua Maitia ere mahaian izan da.

### Bilboko Liburu Azokan

Euskaltzaindiak parte hartu du Bilboko Liburu Azokan. Ekainaren 4tik 14ra bitartean Areatzan egin den Azokan saltokia jarri du Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan ditu salgai.

Euskadiko Liburu Ganbarak antolatzen du Azoka. Urtero legez, ekimenaren koordinatzailea den Asier Muniategik Euskaltzaindiari gonbita luzatu dio bere saltokia izan dezan. Aukeraz baliatuz, erakundeak azken argitalpenak eta bestelako lan batzuk jarri ditu salgai.

### Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan

Azken 50 urteotan gertatu bezala, 2015ean ere Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan da.

Azokak urteurren biribila ospatu du aurten: 50 urte. Horietan guztietan, Euskaltzaindia Durangon izan da eta hala egin du 2015ean ere. Beste zenbait argitalpenez gain, Akademiak nobedadeak izan ditu salgai: besteak beste, *Erlea* aldizkariaren 9. zenbakia eta *Eusker*a argitalpenaren azken bi zenbakiak.

Gerediaga elkartearen eta, horrenbestez, Durangoko Azokaren sortzaileak –“eurak izan ziren Gerediagako eta Azokako lehenengo hazia landatu zutenak”- omendu ditu 50. Azokak eta Argizaiola saria eurei eman die. Saridunak honakoak izan dira: Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritua, Leopoldo Zugaza, Carmen Miranda, Maria Concepción Astola, Maria Rosario Astola, Arrate Salazar, Koldo Alzibar eta Jesus Astigarraga. Argizaiola sariak abenduaren 5ean banatu dira San Agustin Kulturgunean.

50. Durangoko Azokari hasiera emateko, ekitaldi berezia egin da abendua-

ren 4an, San Agustin Kulturgunean. Besteak beste, Gerediaga elkarteko bazkideak eta Azokako guneen arduradun eta erakundeetako ordezkariak batu dira. Euskaltzaindiaren izenean, Xarles Videgain buruordeak hartu du hitza.



Henri Duhau, Txomin Peillen, Frantxua Maitia eta Xarles Videgain Sarako Liburu Azokako aurkezpenean.



Durangoko Azokaren sortzaileak Argizaiola sari jasotzen, tartean Jose Luis Lizundiaren alaba eta biloba.

### III. BESTELAKOAK

#### HERIOTZAK

2015ean ondoko euskaltzain hauek hil dira: Juan Garmendia Larrañaga (urtarrilaren 8an), Joshua A. Fishman (martxoaren 1ean), Emile Larre (maiatzaren 30ean), Jan Braun (ekainaren 29an), Joseph Camino (uztailaren 4an) eta Suzuko Tamura (abuztuaren 3an).

Euskaltzainak zenbakitan

Euskaltzainak	2014-12-31	2015-12-31
Osoak	24	24
Emerituak	5	4
Ohorezkoak	37	32
Urgazleak	146	152
<b>GUZTIRA</b>	<b>212</b>	<b>212</b>

Euskaltzaindiaren akademia jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutu etako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

## I. IKER SAILA

### I.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hiztegiak oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegi*az gain, Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu esku artean: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

#### I.1.1 *Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak)*

*Euskaltzaindiaren Hiztegia - Adierak eta adibideak* izeneko hiztegiaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, bigarren itzulian argitaratutako hitzak.

#### *Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak) egitasmoa*

Urte osoan zehar, sarrerak eta azpisarrera berriak sartzeko lanean aritu da. *Hiztegi Batuko* bigarren itzuliaren hitz zerrendako sarrera eta azpisarrerekin -adieraz, azpiadieraz, definizioz eta adibidez hornituz- osatzen jarraitu da *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

*Hiztegi Batua*ren bigarren itzuliko *pozaldi - zuztar* hitzen arteko sarrerak erredaktatu eta lehenengo itzuliko sarrerak berrikusi dira. Zerrenda osagarriak ere landu dira.

Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) herri literaturako adibideez osatu da. Lan nagusia Auspoa bildumatik ateratako corpus bateko adibideekin OEH osatzea izan da. 26 liburuko corpus bat osatzea erabaki zen, gehienbat herri kutsuko eta XX. mendeko obrez osatua, baina zaharragoei ere (hala nola Frantziako Iraultzari edo Frantsesteari buruzko bertsoei) tartea eginez.

Berrikuspen horren ondorioz, sarrera, azpisarrera edo adiera berri asko (guztira, 1.310) sartu eta laugarren argitaraldi elektronikoa jarri da sarean.

#### I.1.2. *Hiztegi Batua*

*Hiztegi Batua* hiztegi arau-emailea dugu. Hitzen forma estandarrak biltzen ditu. Euskaraz idazterakoan sortu izan den hainbat zalantzari erantzuna ematera dator, hala nola beste hizkuntza batzuetan jatorria duten nazioarteko hitzen formak, nazioartekoak izan ez arren erabilera zabala dutenenak, hainbat herrialdetako biztanleak adierazten dituzten hitzenak, arazo konplexuak izan ditzaketen forma berrienak eta beste zenbait arazo zituztenak finkatzen ditu.

#### *Hiztegi Batuko lantaldea*

2014. urtean 36 milioiko corpus eguneratua oinarritutako 3. aztergaia lantzen hasi zen. Lana burutu ondoren, 43,4 milioi testu-hitz dituen corpusa osatu zen. Hortik abiatuta, 2015eko helburua aurreko urtean hasitako aztergaia osatzea zen: *popero - zuzengune*, 217 forma.

Euskaltzain osoek oharreztatutako formak berrikusi dituzte Euskaltzaindiaren Hiztegiak eta Hiztegi Batuko arduradunek, datuak bilduz, eta lantaldeko kideei helarazi dizkiete haien iritzia eman zezaten. Halaxe egin dute zenbait arlotako hitzekin: familia-loturak; izen propiotikoen eratorriak; aro geologikoak; arrazak; diru zaharrak; txanponak; elementu kimikoak; jaien izenak; hatzen izenak; kartak; musika-notak; -tan bizialdia; zodiakoa.



Aurreko urteetako harremani eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2015ean ere.

### **I.1.3. Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa**

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzkoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* txertatu ahal izateko.

2015ean lantaldeak Kimikako Oinarritzko Lexikoa osatzeko lana amaitutzat eman du. Bestalde, Matematika, Fisika eta Astronomiako oinarritzko lexikoak argitaratzeko prest utzi ditu.

### **I.1.4. Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoa**

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta *Orotariko Euskal Hiztegian* bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.

Aurten 1.500 hitzen aurre-erredakzioa egin da eta beste 1.300 bat hitzen erredakzio aurreratua burutu. *Breve diccionario histórico-etimológico vasco* argitalpenaren lehen liburukia amaitu da.

### **I.1.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa**

Hiztegi Batuko lantaldeak egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra ikusi zuen, gaurko testuak etengabe bilduko dituen. Jokabide horren behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: Lexikoaren Behatokia. UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

11.014.139 testu-hitzi dagozkien testuak katalogatu, prozesatu eta corpus egituratuan txertatu dira. Hainbat komunikabide eta elkarterekin hitzarmenak sinatuak ditu Euskaltzaindiak, ekoitzi dituzten euskarazko testuak Akademiaren eskuetan jar ditzaten. Urte osoan zehar, lan horri ekin zaio.

## **I.2. GRAMATIKA**

Batzordeak *Euskal Gramatikaren* lanean jardun du. Hainbat atal amaitu dira: “Euskararen bereizgarri orokorrak” eta “Izena”. “Mendeko perpaus denborazkoak” eta “Adjektiboa” ataletako bigarren idatzaldia egin da eta beste hiru ataletako idatzaldiari ekin zaio: “Morfologia: eratorpena”, “Mendeko perpaus kontzesiozkoak” eta “Mendeko perpaus baldintzazkoak”.

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da.

## **I.3. DIALEKTOLOGIA**

### **Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa**

Galdeketa puntuen sarea, galde-sorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira. Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

2015ean zazpigarren liburukia kaleratzeko prest utzi da.

X. eta XI. liburukien 135 galderen prestaketa egin da.

Bestalde, otsailaren 27an, Gasteizen, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* VI. liburukia aurkeztu da. Aurrekoak bezala, EHHaren liburuki berria Laboral Kutxaren babesarekin argitaratu du Akademiak. Seigarren liburukiak aditz morfologia lantzen du. Liburuarekin batera, edukia PDF formatuan jasotzen duen CD-ROM bat kaleratu da.

2015ean ere, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V. liburukia ipini du Euskaltzaindiak bere webgunean bi eratarata: ikusgai eta entzungai.

## I.4. ONOMASTIKA

### I.4.1. Onomastika batzorde ahaldundua

2013an, Onomastika batzorde ahaldundua sortu zuen Euskaltzaindiak. Bere zeregina, besteak beste, Onomastika alorreko irizpideak finkatzea da.

### I.4.2. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi orekiko finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu. Hainbat herritako toponimia-ikerketak eta mapak gainbegiratzen aritu da, eta EUDELen bitartez datozen kontsultak erantzun dira, bai eta erakundeek, elkarteek eta banakakoek egiten dituztenak ere.

Batzordeak Euskal Herriko herrialdeetako Administrazio publikoetatik (EAEko Gobernutik eta diputazioetatik, Nafarroako Gobernutik, Ipar Euskal Herriko udal eta herrietatik) iristen diren eskariak jaso eta erantzun ditu. Besteren artean, honako izenak aztertu eta finkatu ditu: Artikaberri auzoaren izena, Azotz herri izena, Caicedo de Yuso izena eta Ollaran udal izena. Zuiako kuadrilla izena aldatzeko eskaerak aztertu eta Gorbeialdea izena hobetsi du. Iratxeta herri izena ofizial egiteko agiria idatzi eta onartu du.

Lantziegoko kale izendegia finkatu du, Aralarko Malloa toponimoa finkatu, Zumeltzu eta Jungitu herri izenen agiriak egin ditu eta Ariz eta Bolibar herri izenen txostenak onartu ditu.

### I.4.3. Exonomastika batzordea

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Aurten honako araugaiak landu ditu: *Antzinateko herriak. Ekialdeko eta Europako herriak* (174. araua); *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (I): Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia* (175. araua); *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II). Antzinateko Egipto* (176. araua); *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III). Antzinateko Egipto* (177. araua); *Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa* (178. araua).

Era berean, *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia* (76. araua) eta *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak* (82. araua) osatu, eguneratu eta emendatu ditu.

### I.4.4. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu eta datuak jasotzen jarraitu da.

Asiako toponimia eta Amerikako toponimia arauetako erregistroak jaso dira. Beste hainbat datu onomastiko erregistratu dira, eta datu-basean jaso. Hala, Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Galar* eta Jose Luis Orellaren *Cartulario real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (1454-1474)*.

Lan bera egin du ondoko artikuluekin: “Notas lingüísticas a Colección diplomática de Irache”, “Introducción fonética a la onomástica vasca” edota “Estratos en la toponimia alavesa”, Koldo Mitxelenarenak; Patxi Salaberri Zaratiegiren “Notas de toponimia alavesa: antropónimos en -a /-ana”; Jean-Baptiste Orpustanen “Nouvelle toponymie basque: noms des pays, vallées, communes et hameaux historiques de Labourd, Basse-Navarre et Soule, édition entièrement revue et corrigée”; eta Mikel Gorrotxategiren “Sustitución y alteración de topónimos en las Encartaciones de Bizkaia”.

Euskal Herriko toponimia ikerketen mapa eguneratu da. Besteak beste, 5.105 leku- eta 461 pertsona-izen eta 298 deitura jaso dira.

Egitasmo hau Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko urteko hitzarmenean espresuki jasota dago, eta horretarako ematen duen diru-laguntzari esker egin ahal izan da.

#### **I.4.5. Gasteizko Toponimia egitasmoa**

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da Udal-barrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. 2015. urtean, *Gasteizko Toponimia V, Arratzua I/ Toponimia de Vitoria V, Arratzua I* liburukia argitaratzeko prest utzi da.

Gasteizko Arratzua merindadea 21 herrik osatzen dute; hori dela eta, duen hedadura zabalarengatik, hiru liburukitan aztertuko dira. Arratzua I da lehena eta bertan Arkaia, Arkauti, Betoñu, Elorriaga, Gamiz eta Otazuko leku izenak aztertu dira.

## **I.5. LITERATURA**

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen ari dira. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

### **I.5.1. Herri Literatura batzordea**

Onomatopeien hiztegian eta Xahoren kantutegian lanean ibili da batzordea.

Bestalde, ahozkoatasuna lantzen aritu da.

Urtero bezala, Xalbador Egunaren antolakuntzan parte hartu du.

### **I.5.2. Literatura Ikerketa batzordea**

*Euskal Literaturaren Antologia: Erdi Aroa eta Errenazimentua* liburukia argitaratzeko prest utzi da.

Batzordearen ekimenez, jardunaldi bi antolatu dira 2015ean:

Batetik, 100 urte bete dira Jose Manuel Etxeita idazle mundakarra hil zela. Hori dela eta, uztailaren 10ean, bere omenezko jardunaldia egin dute Euskaltzaindiak eta Mundakako Udalak. Jon Kortazarrek eta Ana Toledok hitzaldi bana eman dute.

Bestetik, urriaren 16an "Piarres Larzabal sortzearen mendeurrena (1915-2015)" jardunaldia egin du Euskaltzaindiak Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean. Daniel Landart, Ixabel Etxeberria, Antton Luku eta Patri Urkizu izan dira hizlariak.

## I.6. FONETIKA ETA FONOLOGIA

### I.6.1. Ahoskera batzordea

Urriari Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak antolatuta, Ahoskera Jardunaldia egin du Akademiak Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldian, ahoskeraren garrantzia azpimarratu da eta arlo guztietako eragileen hausnarketa eta parte hartzea aldarrikatu da.

Miren Azkarate euskaltzain oso eta EHUko irakasleak, Iñaki Camino euskaltzain urgazle eta EHUko irakasleak, Julia Marin antzerki itzultzaile eta komunikazio teknikan irakasleak eta João Veloso fonologialari eta Portoko Unibertsitateko irakasleak hitzaldi bana eman dute. Ahoskera batzordeak landutako txostena ere aurkeztu da.

## II. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua: Corpus eta Sustapen.

### II.1. CORPUS BATZORDEA

Euskararen corpusa jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.

*Euskara Batuaren Eskuliburua* egitasmoa abian jarri da.

### II.2. EUSKALKIEN LANTALDEA

Lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Egitasmo horretan sartzen dira orain arte landu diren zerrenda hauek: Bizkaiko eta Nafarroako Sakanako hitzak eta Labayru Hiztegi A letratik K letrara arteko hitz-zerrendak.

Aurten Labayru Hiztegi H eta J letrari dagozkien 176 eta K letrari dagozkion 255 sarrera landu dira. Bestalde, urtean zehar aztertu eta erabakitako materiala zerrendara gehitu da.

### II.3. SUSTAPEN BATZORDEA

Batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

Aurten XX. Jagon Jardunaldiak egin ditu, “Hedabideak euskararen sustapenean” gaiaren inguruan. Gaia hiru multzotan aztertu da:

Hedabideak eta hizkuntza politika. Patxi Baztarrikak, Mikel Arregik eta Bernadette Soulék parte hartu dute eta Andoni Egaña izan da moderatzailea.

Hedabideen egitasmoak. Alaitz Artolazabal, Martxelo Otamendi, Iñaki Guridi eta Jose Luis Aizpurua izan dira hizlariak eta Marijo Deogracias moderatzailea.

Hedabideen kanpoko begirada. Mahai-ingurua egin da, solaskide hauekin: Leire Palacios, Beatriz Zabalondo, Aingeru Epaltza eta Alberto Barandiaran. Aitor Zuberogoitiak moderatu du.



XX. Jagon jardunaldia “Hedabideak euskararen sustapenean”.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak hasiera eman diote jardunaldiari. Amaieran, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri dituzte.

Apirilaren 17an "Denon esku dago euskara biziartztea" mintegia antolatu dute Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak eta Sabino Arana Fundazioak. Mintegiaren emaitza *Hermes* aldizkariaren 50. zenbakian bildu da; horren aurkezpena azaroaren 9an egin da. Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordea zenbaki horren edukien prestatzailea izan da.

Bestalde, 2014an egin ziren XIX. Jagon Jardunaldietan aurkeztutako hitzal-diak eta txostenak bildu eta *Euskera* agerkarian argitaratu dira, "Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan" goiburuean.

#### II.4. JOANES ETXEBERRI EGITASMOA (EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA-EHS)

Egitasmoak euskarak, eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzek denboran zehar izandako gizarteko izaera-bizierak aztertzen ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

2015. urtean martxan dauden hiru lan *Euskal aipamenak arabiar iturrietan I* eta *II* eta *metodologia-eredua* argitalpenerako prestatzeari eman zaio lehentasuna.

Horrezaz gain, Donostia 2016ko ekintzetara egin nahi duen ekarpena prestatzen hasi da.

### III. EGITURAZKO BATZORDEAK

#### III.1. ARGITALPEN BATZORDEA

2015erako Argitalpen alorreko plangintza aztertu da. Erabakitakoa, egoki eta aurreikusitako epe eta aurrekontuan betetzen dela bermatzen du.

Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuarekin elkarlana indartu da, argitalpenetako edukien hizkuntza kalitatea hobetze aldera.

#### III.2. AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA BATZORDEA

Batzordeak Azkue Bibliotekako lanen jarraipena egin du eta, besteren artean, Euskaltzaindiaren artxibo administratiboa antolatzekeo lanari jarraipena eman zaio. Dokumentuen tratamendurako oinarritzko ildoak erabaki dira.

Piarres Lafitte (II) artxiboa digitalizatzeari ekin zaio. Koldo Mitxelenaren eskuizkribuak egitasmoarekin lanean jarraitu da.

HABEren Bibliotekarekin hitzarmena sinatu da.

#### III.3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK BATZORDEA (IKT)

Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundea ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz.

Webguneari arreta berezia jartzen dio, edukien hautaketa eta eguneratze prozesua kontuan hartuz. Halaber, aurreikusitako argitalpenen bertsio elektronikoak webguneratu dira.

#### III.4. ERLEA ALDIZKARIA

2015ean *Erlea* aldizkariaren zortzigarren eta bederatzigarren zenbakiak kaleratu dira.

## IV. RESURRECCION MARIA AZKUE SARIAK

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero.

Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak urrian egin dute R. M. Azkue Literatur Sarietarako deialdia. Urtero bezala, deialdia bi modalitatetan egin da, narrazioan eta olerkian. Modalitate bakoitzean bi maila izan dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. R. M. Azkue Sariak idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Hona hemen 2015eko R.M. Azkue saria irabazi dutenak:

Saria	Lan saritua	Egilea	Ikastegia
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Itsasoari begira</i> 2) <i>Obsesioa</i> 3) <i>Bizitzaren margoak</i>	Edurne Bastida Naia Aiestaran Elene Etxaniz	Urola Ikastola (Azpeitia) Beasain Institutua (Beasain) Zubi Zahar Ikastola (Ondarroa)
A: poesia 10 - 13 urte	1) <i>Hareazko erlojua</i> 2) <i>Barkamenaren hazia</i> 3) <i>Haizearen xuxurla</i>	Narrea Muñoz June Manjarrés Edurne Bastida	Urola Ikastola (Azpeitia) Hurtzaro Ikastola (Oiartzun) Urola Ikastola (Azpeitia)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Isiltasunean lagun</i> 2) <i>Gezurra</i> 3) <i>Hizez sortutako bidaia</i>	Olaia Gerendiain Maddi Aiestaran Zuriñe Ruiz	Pasaia-Lezo lizeoa (Pasaia) Beasain Institutua (Beasain) Pasaia-Lezo lizeoa (Pasaia)
B: poesia 14 - 17 urte	1) <i>Hitzak hots</i> 2) <i>Tonalitate bakarra</i> 3) <i>Heldutasuneranzko bidean</i>	Idoia Granizo Irene Nogueira Saioa Ventura	Altsasuko BHI Ikasbide ikastola (Durana) Askatasuna IPa (Burlata)

Epaimahaikideak honako hauek izan dira:

- A maila: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.
- B maila: Miren Billelabeitia, Amaia Jauregizar eta Francisco Jabier Rojo.

Bestalde, irailean, *Narrazioak eta olerkiak 2014* liburua kaleratu da. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitutako 2014ko R. M. Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburu honetan. Hauek dira egileak: Maddi Aiestaran, Naia Aiestaran, Nerea Erdozain, Mikel Labaka, Ane Azpiazu, Leire Eizmendi, Oihane Gurrutxaga eta Johanna Ramirez. Arantxa Bastidaren lana ere argitaratu eman da, akzesita lortu baitzuen.



2015eko R.M. Azkue sarietan irabazle izan ziren idazle gazteak epaimahaikideekin, euskaltzainburuarekin eta BBK-ko ordezkaria den Gorka Martinezekin.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

### III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpen eta Banaketa, Prentsa eta Komunikazioa eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet zerbitzua Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuaren barruan dago eta Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburretan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

#### ORDEZKARITZAK

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkariaren bidez.

#### JENDAURREKO ZERBITZUAK

Bost bulegoetara etortzen diren herritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietatik ponte-izen eta deiturari buruzko ziurtagiriak egin dira.

### ERAKUNDEAREN BILERAK

Osoko bilkurak hilean behin egiten dira, Bilbon, Donostian edota, erakundeari hala eskatzen zaionean, Euskal Herriko beste herri batzuetan. Zuzendaritzako bilerak hilean bitan egiten dira, bideohitzaldiz.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkarietatik biltzen dira.

### ZUZENDARITZA

Hilean bi aldiz biltzen da. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. 2015. urtean zehar 23 bilera egin ditu.



Zuzendaritza, Markel Olano Gipuzkoakoa ahaldun nagusiarekin eta Mikel Irizar, Aldundiko Euskara zuzendariarekin.



## EKONOMIA ZERBITZUA

Erakundearen arlo ekonomikoaz arduratzen da eta hauek ditu zeregin garrantzitsuenak: aurrekontuen prestaketan laguntzea, gastu eta sarre-rak kontabilizatzea, jasotako diru-laguntzen kudeaketa eta erakunde bakoitzari bidali beharreko kontu errendapenak prestatzea, lantaldeek sortutako gastua kalkulatu, ordainketak orokorrean, bankuko mugimenduen kontrola, giza baliabide arloaren gainbegiratzea eta zergen kudeaketa.

Zerbitzuaren ardura nagusia kudeatzailearena da.

## BATZORDE ETA EGITASMOEN KOORDINAZIO ZERBITZUA

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lan-nen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen dio Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteeekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Tekni-koarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

## IDAZKARITZA

Administrazio-lana egiten du. Dokumentazio artxiboaz ere ardu-ratzen da.

## III.2. AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA

Liburuek, aldizkariak eta antzekoak osatzen dute *Azkue Bibliotekaren Katalogoa* (ABK). Lau prozesu desberdin sartzen dira hemen: erosketa/ eskuraketa, katalogazioa, erabiltzaileekikoak (kontsulta, mailegua, ko-pia) eta mantentzea.

Urte askoan zehar lanean egon ondoren, Euskaltzaindiak zaintzen dituen artxibo-funtsen katalogoa guztion eskura jarri da. Katalogo ho-rretan hiru motatako funtsak biltzen dira: erakundearen beraren admi-nistrazio artxiboa (1919-1970); hainbat euskaltzain edo euskaltzaleren

artxibo pribatuen funtsak; eta ikus-entzunezko artxiboaren funtsak. Sarean kontsulta daitezke guztiak, Akademiaren webgunean, Azkue Biblioteka eta Artxiboa atalean.

Bibliotekaren eta Artxiboaren katalogoen mantentze-lanak egin dira. Kol-do Mitxelenaren gutuneria zerrendatu eta digitalizatu egin da.

2017 item digitalizatu dira -dohaintzak eta aldizkarien funts analitikoak- eta katalogoan zuzenketak eta sistematizazio lanak egin dira (1.200 item). Funts bildumak erabat berrantolatu dira (2.054 aldizkari).

Bestalde, 1961. urteaz geroztik hildako 41 euskaltzain osoren bio-biblio-grafia landu da.

## III.3. ONOMASTIKA ZERBITZUA

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galde-rak, eta batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute -jaioberriak erre-gistratzeko, adibidez- eta beste batzuek ikerketa luzeagoa.

2015ean 77 pertsona inguru etorri dira egoitzara kontsultak egitera, ge-hien bat pertsona-izenen (46), deituren (18) eta leku-izenen (13) inguruan. Bestalde, 618 telefono dei jaso dira, bai partikularrek eginda, bai eta erregis-troek ere. Posta elektronikoz, aldiz, 700 kontsulta egin dira.

Lekuek eta deiturek sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere pertsona izenak dira interesa handiena sortzen dutenak. Hala, 1016 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, bai partikularrek eginda, baita bake epaitegiek edo erregistroek ere.

EUDELekin indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei Onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. 2015. urtean honako lanak egin dira: Ainhoa, Arrigorriaga, Ataun, Barakaldo, Barrika, Basauri, Baztan, Berga-ra, Bermeo, Donostia, Eibar, Erriberagoiti, Ezkio-Itsaso, Izurtza, Kanpezu, Lantziego, Larrabetzu, Laukiz, Lizoainibar-Arriasoiti, Mallabia, Meñaka, Oñati, Portugalete, Santurtzi, Sondika, Sopusuerta, Trapaga, Agoiz, Urnieta, Usurbil, Ziortza-Bolibar eta Zumaia.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, hainbat lan egin dira. Institutu Geografiko Nazionala (IGN) erakundearen 1:25.000 eskalako mapetan aurkitutako aldeak zuzendu dira: Abadiño, Abanto-Zierbena, Amoroto, Amurrio, Aramaio, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrigorriaga, Artzentales, Asparren, Atxondo, Barrika, Berritu, Berriz, Durango, Elgoibar, Errenteria, Gorkiz, Igorre, Arabako hagiotoponimoak, Mañaria, Meñaka, Oñati, Sopuerta, Tolosa, Trapagaran eta Zaratamo.

Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek edota Nafarroako Gobernuako Euskarabideak egindako kontsultak ere erantzun dira.

Azkenik, Zerbitzuko arduradunak irratsaio bat egin du Bizkaia Irratian, Bizkaiko toponimiaz. Eta hainbat hitzaldi eta aurkezpen egin ditu.

### III.4. ARGITALPEN ZERBITZUA

Jarraiko argitarabidea gauzatu du Euskaltzaindiak 2015. urtean:

- *Euskera*, 2014,1. Egileak: Batzuk
- *Euskera*, 2014,2. Egileak: Batzuk
- Euskaltzaindiaren 2014ko Oroitidazkia (euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz)
- *Araba / Álava. Los nombres de nuestro pueblos*. Egilea: Patxi Salaberri Zaratiegi
- *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*: Egileak: Mikel Zalbide – Lionel Joly – Nick Gardner
- *Toponimia de Vitoria V – Gasteizko Toponimia V: Arratzua I*. Egilea: Elena Martínez de Madina
- *Euskal Literaturaren Antologia: Erdi Arotik Errenazimentura I*. Egilea: Literatura Ikerketa batzordea
- *Narrazioak eta olerkiak*, 2014. Egileak: Batzuk
- *Linguae Vasconum Primitiae* (2015). Eusko Legebiltzarrekin elkarlanean. Koordinatzailea: Xabier Kintana

### Argitalpen hauetaz gain, aurreko urteetan kaleraturiko zenbait lanen bertsio digitalak webgunean txertatu dira:

- *Euskera* 2013,1. Egileak: Batzuk
- *Euskera* 2013,2. Egileak: Batzuk.
- *Lehen Mundu Gerra “Eskualduna” astekarian*. Egilea: Eneko Bidegain
- Euskaldun hazi Nafarroan. Egilea: Paula Kasares
- *Zubererazko alegia, istorio eta ipuin irri-egingarri: “Gure Herria” al-dizkariaren idazleak (1924-1939)*. Prestatzailea: Jean-Baptiste “Battitu” Coyos
- *Amodioaren martirra: Emazte bat berthutez bethea*. Prestatzailea: Xabier Altzibar
- *Le fondament moral des droits culturels de l’homme (Kultura eskubideen oinarri etikoak)* Egilea: Piarres Xarriton
- *Narrazioak eta olerkiak* 2013. Egileak: Batzuk



la argitalpen guztien salmenta Akademiak egiten du. Ale gehienak bantzaileen bidez saltzen dira; eta gutxiago, azoka, liburu-denda eta zuzeneko eskarien bidez.

Akademia Euskadiko Editoreen Gremioko kide da. Euskaltzaindiaren argitalpen ugari, hainbat formatutan [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus) webgunean ikusgai eta erabilgarri daude.

2015ean argitaratu diren lanen artean, *Araba / Álava. Los nombres de nuestro pueblos* eta *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa* lanak izan dira zabalkunde gehien izan dutenak.

Bestalde, Euskaltzaindiak bere gordailuan hainbat lan egiten ditu, eta horien ondorio gisa bere argitalpen katalogo bizia birdefinitu du.

### III.5. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA

Euskaltzaindiko sistema informatikoak eta telekomunikaziozkoak mantentzea da Zerbitzuaren helburu nagusia. Horretaz gain, sistema hauek etengabe hobetzeko berrikuntza proiektuak ere bideratu eta koordinatzen ditu, IKT batzordearen agindupean, berrikuntza teknologikoaren arloko Euskaltzaindiko proiektuen zuzendaritza teknikoa bere gain hartuz.

2015ean egin diren lanak honako hauek dira:

- Ordu-tegi-kontrol berriarentzako hardware eta software plataforma eguneratzea.
- Azken hilabeteetan zabalik jarraitzen duten arazo teknikoek konponbidea ematea: Red Hat bezeroetako Xorg sistemaren blokeoak eta Iruñeko ADSL konexioaren igotzeko abiadura txiki-egia izatea.
- Egoitzako inprimagailu lokalak berritzea.
- Biltegi-ratze sistema nagusia hobetzea.
- Zimbra mezularitza plataformaren bertsioa berritzea.
- Windows 2003 zerbitzaria birtualizatzea.

Azkue Bibliotekako Katalogoa ostatatzen duen Absys sistema AbsysWeb

ingurunera migratzea.

- Webguneko edukiak eguneratzeko eta argitalpenen prestaketarako lanak: *Euskal Onomastikaren Datutegiko* datu-kargak; *Hiztegi Batuaren* datu-baseko entregan oinarritua, webguneko HB eta HBO ataletako edukiak eguneratzea; EHHaren VII. liburukiko esportazioa, argitalpen prozesurako; JAGONET galde-erantzunen datu-basearen kargak; etab.

Bestalde, sistema informatikoak mantentzea dagokio zerbitzu honi.

### III.6. PRENTSA ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUA

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea, Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Oroitidazkia egiten du Idazkariordearekin batera. *Plazaberri* bloga kudeatzea ere zerbitzu honi dagokio. Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien ardura ere zerbitzu honena da.

2015ean egindako lanen artean hauek aipa daitezke: Juan Garmendia Larrañaga, Joshua A. Fishman, Emile Larre, Joseph Camino, Suzuko Tamura eta Jan Braun euskaltzainen heriotzak; euskaltzain urgazle berrien izendapena; hilberri txostenak (Peli Martin, Jose Antonio Retolaza eta Xabier Aranburu); Euskaltzaindiaren XX. Jagon Jardunaldiak; Euskaltzaindiaren argitalpenen aurkezpenak; Euskarazko Tesien IV. Koldo Mitxelena sariak; Jose Manuel Etxeitari eta Piarres Larzabali Mundakan eta Baionan egin zaizkien omenaldiak; R.M. Azkue sariak; “Denon esku dago euskara biziaraztea” mintegia; Ahoskera batzordeak antolatutako Ahoskera jardunaldia; Koldo Mitxelenari Donostian egin zaion omenaldia; edota erakunde eta elkarte askorekin sinatu diren lankidetzeta-hitzarmenak.

### III.7. JAGONET

JAGONET Euskaltzaindiaren kontsulta- eta aholku-zerbitzua da. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuaren barruan dago.

JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren webgunean JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaioke bere zalantza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoko bidetako zerbitzu zuzena eta banakakoa da eta pribatua galdegilearekiko.

2015eko datuak ondoko hauek dira: JAGONETeko datu-basean 684 galde-erantzun ageri dira webgunean, eta 51.489 aldiz bistaratu dira galde-erantzun horiek. Galdelekuan, berriz, 516 galdera jaso dira eta horietako 512 erantzun dira.

## 4. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

### IV.1. AURRETIK DATOZEN LANKIDETZA-HITZARMENAK

#### HERRI ERAKUNDEAK

- Eusko Legebiltzarra
- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)
- Eusko Jaurlaritza
- Frantziako Administrazio Publikoa (Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque)
- Nafarroako Gobernua (Euskarabidea)
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskadiko Udalen Elkartea – EUDEL
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Gasteizko Udala

#### KUTXAK

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Gipuzkoako Kutxa
- Caja Vital Kutxa Fundazioa

#### KOMUNIKABIDEAK

- *Argia* aldizkaria
- *Berria* egunkaria

- *Bizkaia* Irratia
- *Deia* egunkaria
- *El Correo* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- EITB
- *Euskalerrria Irratia*
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- *Herria* astekaria
- Iparragirre editoriala
- *Jakin* aldizkaria
- *Karmel* aldizkaria
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria

#### ELKARTEAK, ERAKUNDEAK ETA FUNDAZIOAK

- AEK
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Deustuko Unibertsitatea
- Eako Udala
- Elhuyar Fundazioa
- Elkar Fundazioa
- Errioxako Unibertsitatea
- Etxepare Institutua

- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Euskal Kultur Erakundea
- Eusko Ikaskuntza
- Gabriel Aresti Kultura Elkartea
- HABE
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE – IVAP)
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Jakin Fundazioa
- Labayru Euskal Kulturaren Erakundea
- Laneki Lanbide Heziketan euskara sustatzeko elkartea
- Langune Hizkuntza Industrien Elkartea
- Mendebalde Kultura Alkartea
- Mintzola Fundazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Olaso Dorrea Sorrerakundea
- ONCE (Espainiako Itsuen Erakundea)
- Sabino Arana Fundazioa
- Soziolinguistika Klusterra
- Topagunea
- Udako Euskal Unibertsitatea

- Unesco Etxea
- UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa
- Xiberoko Alkargoa

## IV.2. 2015EAN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAK

### ERAKUNDEAK

#### Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuak eta Euskaltzaindiak parlamentu-lexikoa bateratzeko konpromisoa hartu dute. Horretarako, 2015eko urtarrilaren 21ean, bi erakundeen izenean, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Alberto Catalán Parlamentuko presidentek eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hitzarmenean jasotzen den bezala, Nafarroako Parlamentuak euskarazko datu- eta agiri-base bat dauka, Legebiltzarreko zerbitzu teknikoek egindako itzulpen lanak gordetzeko beharrezko ondorioz sortutakoa. Datu-baseak euskarazko terminologiako eta parlamentu-lexikoko balio handiko funts bat dauka, zeina kontserbatu eta gaurkotu nahi baita parlamentu-esparruko beste erakunde batzuekin ere lan eginez.

Euskaltzaindia hainbat erakunderekin lan bat egiten ari da, Eusko Legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan erabiltzen den parlamentu-lexikoa bateratzeko.

Nafarroako Parlamentuak Euskaltzaindiaren eskura jarriko ditu erabilgarri dauden testuak, lexikoaren lematizazioari, etiketatzeari eta kasuko oharpen linguistikoari ekin diezaien. Lan horretan, Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar nagusiek ere parte hartuko dute.

Bestalde, sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Euskaltzaindiak erabili ahalko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratzen dizkion testuak, Akademiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko eligitasmoa elikatzeke.

## Nafarroako Gobernua

Martxoaren 3an sinatu da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko 2015eko lankidetzeta-hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du eta, Euskarabidearenean, Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak. José Iribas Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria eta Julen Calvo Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuko zuzendaria ere ekitaldian izan dira.

Lankidetzeta-hitzarmenak urteko lan arloak zehazten ditu. Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan egiten dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko.

Bestalde, hitzarmenak adierazten duen bezala, Nafarroako Gobernuak jarraian aipatzen diren lanak egiten ditu: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan Nafarroako berezko aldaerak sartzen eta hizkuntza kalitatearen zerbitzua-  
ren funtzionamenduan lagundu. Euskaltzaindiak behar dituen itzulpenak ere egingo ditu. Lan horiek Euskarabideko langileek egiten dituzte.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera, Euskaltzaindia da erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Foru Lege berean arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaitan izan behar duen jarduera, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

## Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)

Herri Agintek 2000. urtean egindako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion eta, ondorioz, administrazioek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari. 2005. urteaz geroztik, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziari esker, Herri agintek Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatu ditu.

2015eko uztaietan Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak 2015. urteko betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena sinatu dute.

Lankidetzaren zehaztasunak, bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta diru-laguntza zehazten dituen eranskina izenpetu dute Frantxua Maitia EEPko presidentek eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

2015eko berrikuntzen artean, ECO datu-basea osatzea, aberastea eta eguneratzea dago. ECO egitasmoaren helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Hala, EEPren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenean jaso denez, Onomastikaren eremuan egiten diren kontsultei egokitasunez erantzuteko, bai eta arautze lana errazteko ere, euskal onomastika (ponte-izenak, deiturak, toponimoak) idatzizko eta ahozko iturrietatik jasoz, Euskaltzaindiak sorturiko Euskal Corpus Onomastikoaren (ECO) datu-basea Ipar Euskal Herriko datuez hornituko da.

Euskaltzaindiaren argitalpenei dagokienez, 2015ean, *Euskal Literaturaren Antologia I. Erdi Arotik Errenazimentura* liburua argitaratzea, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak paratua, aurreikusi da.

Era berean, Piarres Charrittonen *Clément Mathieu apezpikua* liburuaren prestalana egingo da 2015ean.

Bestalde, aurreko urteotan bezala, 2015. urtean ere, honako betebeharrak daude:

- Euskaltzaindiak aholku emango dio EEPri, toponimoen grafia egokiari buruzko gaitan.
- Euskaltzaindiak EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egingo du.
- Euskara teknikari-garatzaleei edota euskarazko toponimia grafian lan egiten duten bestelako agenteei formakuntza ikastaro bat emango dio Euskaltzaindiak.
- IGNko toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak publiko egingo dira. Alegia, IGNko toponimoen arautze lanen berri emanen dute Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskaltzaindiak.
- IKAS pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena egingo da. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2015ean araberrako prozedura egoki bat jarriko dute abian, IKAS pedagogia zentroarekin elkarlanean.



Maximino Pérez, José Iribas eta Andres Urrutia.



Oiartzungo Udala eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena: Andres Urrutia, Jexus Leonet alkatea eta Eugenio Arotzena.



Gorka Urtaran eta Andres Urrutia.



Erramun Osa, Xarles Videgain, Andres Urrutia, Christine Tessier eta Patxi Salaberri Zaratiegi.



## UDALAK

### Gasteizko Udala

Uztailaren 22an urtebeteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean Gorka Urtaran alkateak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Gasteizko Toponimia egitasmoa da bi erakundeon arteko lankidetzaren emaitzarik behinena. Aurten bertan argitaratuko da bosgarren liburukia, *Gasteizko Toponimia V, Arratzua I / Toponimia de Vitoria V, Arratzua I*.

Xabier Kintana Akademiako idazkaria, Adolfo Arejita Iker sailburua, Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea ere ekitaldian izan dira.

Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana aspaldikoa da eta, besteren artean, Akademiak Udalari ematen dion hizkuntza aholkularitzan gauzatzen da. Esan bezala, egitekorik nabarmenena Gasteizko Toponimia egitasmoa da.

Egitasmoaren helburua Gasteizko udalerriko toponimo guztiak sistematikoki jasotzea da, hots, galduta edota desitxuratuta dauden toponimo ugariak berreskuratzea. 1996an hartu zuen bere gain Euskaltzaindiak Gasteizko toponimia berreskuratzeke lana, urte berean Gasteizko Udalarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean jaso zenaren arabera. Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzaina da egitasmoaren zuzendaria eta Elena Martinez de Madina teknikaria.

### Oiartzungo Udala

Eugenio Arotzenaren antzerki bilduma herritarren eta, bereziki, ikertzaileen esku ipintzea xede, Oiartzungo Udalak Eugenio Arotzenaren antzerkiaren inguruko funtsak dohaintzan eman dizkio Euskaltzaindiari. Abenduaren 16an sinatu dute dohaintza jasotzen duen dokumentua bi erakundeotako ordezkariak. Oiartzungo Udalaren aldetik, Jexux Leonet alkateak eta Josune Cousillas Kultura zinegotziak parte hartu dute ekitaldian; Euskaltzaindia, berriz, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Erramun Osa idazkariordeak ordezkatu dute. Eugenio Arotzena bera ere ekitaldian izan da.

Arotzenaren bildumak euskarazko antzerkia eta antzerki unibertsalari buruzko 2.800 erregistro baino gehiago ditu eta liburu, aldizkari, artikulu, kartel edota argazkiak biltzen ditu.

Oiartzungo Udalak 2005ean erosi zion Eugenio Arotzenari bere antzerki-bilduma. Bildumaren tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuta, egoki kudeatzeko gaitasuna duen erakunde baten eskuetan uztea erabaki zuen Udalak.

Hala, dohaintzaren bidez, antzerki-artxibo horri erabilera publikoa eman nahi izan dio Oiartzungo Udalak, herritarren eta ikertzaileen eskura jarritz, euskal antzerkigintzaren hedapenean eragiteko. Hitzarmenak jasotzen duen legez, “bilduma herritarren eta ikertzaileen esku ipintzeaz hauxe ulertu behar da: funts horiekiko erreferentzia bibliografiko edo artxibistikoak katalogo estandarretan integratzea, erabiltzaileek horien bidez eskuratu ahal izan dezaten”. Horretarako gaitasuna duen erakundea da Euskaltzaindia.

Hurrengo bi urteetan, Euskaltzaindiak Arotzenaren bilduma katalogatuko du eta, batez ere, komunitate zientifikoaren esku jarriko du materiala.

## ELKARTEAK, ERAKUNDEAK ETA FUNDAZIOAK

### Ramon Rubial Fundazioa

2015eko martxoaren 23an, Ramón Rubial Fundazioak eta Euskaltzaindiak bi urteko iraupena izango duen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, Bilbon, Akademiaren egoitzan. Fundazioaren izenean Eider Gardiazabal presidentek sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Eurekin batera honako hauek izan dira ekitaldian: Idoia Mendia eta Vicente Reyes, PSE-EEko idazkari nagusia eta Prestakuntza eta Kultura idazkaria, hurrenez hurren; Xabier Kintana Euskaltzaindiaren idazkaria eta Adolfo Arejita Iker sailburua.

Hitzarmenaren helburua Ramón Rubial Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzarako oinarri nagusiak ezartzea da. Hala, euskara hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon xedeetako bat.

Fundazioa eta Akademia elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizatorako proiektuak garatzeko, eta Ramón Rubial Fundazioaren barruan edo beronen bitartez Euskaltzaindiak euskarari buruz emandako arauak edo gomendioak zabaltzeko.

Horrezaz gain, hauek dira hitzarmenaren ildo nagusiak:

- Ramón Rubial Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarri beren ikerketa-funtzen ondarea erabiltzeko aukera eskainiko diote, bai eta, bereziki, beren artxibo eta liburutegiak ere.
- Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira.
- Ikerketarako interesgarri gerta daitezkeen lan batzuk, aurretik horiek argitaratzea pentsatu ez arren, adibidez tesiak edo bestelako obrak, beste aldearen esku utziko dira, betiere egileen eskubideak errespetatuz.
- Bi erakundeek lankidetzaren politika sustatuko dute, ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak, erakusketak eta sinposioak eginez.
- Euskaltzaindiak Ramón Rubial Fundazioari aholkularitza eskainiko dio.

- Akademiak lexiko batuaren, arauen, izendegien eta onomastikaren arloetan harturiko erabakien edo egindako gomendioen aurkibidea errazteko bideak ezarriko dira.

Helburu hauek lortzeko, Ramón Rubial Fundazioak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute, alde bakoitzeko bina kide izango dituen.

### Institut Géographique National (IGN)

Ekainaren 2an, Institut Géographique National (IGN) eta Euskaltzaindiak bost urteko iraupena izango duen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Bordelen, IGNren bulegoan. Hitzarmenak, batez ere, toponimia arloari dagokio, Akademiak egindako zerrendak eta proposamenak aintzat hartzen baititu IGNk, Ipar Euskal Herriko euskal toponimoak erabakitzeke orduan.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Christine Tessier IGNren Akitaniako ordezkariak sinatu dute hitzarmena. Eurekin batera, Xarles Videgain Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkaria, Patxi Salaberri Onomastika batzordeko burua, Erramun Osa Akademiako idazkariordea eta Philippe Abadie IGNren Kanpo Harremanetarako burua izan dira.

Institut Géographique National frantses estatuko egitura handiko erakundea da eta, besteren artean, informazio geografikoa lantzen du eta mota askotariko mapak argitaratzen ditu.

IGNk badu leku-izenak biltzen dituen Toponimia batzordea, izen bakoitzak zein forma izan behar duen erabakitzen duena. Hori dela eta, euskarazko toponimian IGNk badu zer esanik, eta Euskaltzaindiarekin lankidetzaren aritzea garrantzitsua da. Izan ere, euskarazko toponimoei dagokienez, Akademiak egiten ditu zerrendak eta proposamenak eta IGNk kontsultatzen ditu Ipar Euskal Herriko leku bakoitzari eman behar zaion forma erabaki aitzin.

Orotara, Euskaltzaindiak 12.000 toponimo ikertu behar ditu, 1:25000 eskalako mapetan agertuko direnak. Akademiaren xedea, euskararen arauak eta euskararen sena toponimo horietan kontuan hartzea da.

## Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE)

Uztailaren 17an, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) eta Euskaltzaindiak bost urteko iraupena izango duen lankidetzahitzarmena sinatu dute Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Bi erakundeon esanetan, hitzarmen <<estrategikoa>> da. Biek ala biek interakzioa aldarrikatu dute, Akademiaren eta eragileen arteko interakzioa, hain zuzen ere.

Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du eta elkartearenean Mikel Garmendia Ugarte presidentek.

Bi erakundeen arteko elkarlana, euskararen eta euskal kulturaren sortuntzarako, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da.

Besteak beste, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, EIZIEk bere esku dituen hainbat argitalpenen euskarazko testu-masa -*Senez* aldizkariko, Literatura Unibertsala, Urrezko Biblioteka eta Itzultzaile aitzindariak bildumetako eta *31 eskutik* blogeko testuak- Akademiaren eskuetan jarriko da.

Horretarako, aldez aurretik, Euskaltzaindiak, EIZIEk ematen dion datu-ba-sea oinarritzat hartuz, egileen baimen idatziak eskuratu beharko ditu. Euskaltzaindiak jasotzen duen testu-masa indarrean dagoen araubideak egile-eskubideei buruz dioena gordez baliatuko du.

## Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK lankidetzahitzarmen berria sinatu dute urrian. Hitzarmen horren bitartez, bi erakundeon arteko elkarlanean esparru berri bat zabaldu da, Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako master eta doktorego programan matrikulatutako ikasleen master amaierako lanak edo doktorego tesiak zuzentzeko xedearekin.

Hala, bi erakundeon arteko engaiamenduari esker, Euskaltzaindiak Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterreko eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten bere zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkarietan.

Izan ere, indarrean dagoen arautegiaren arabera, masterretan kolabora dezakete unibertsitateko irakasleak ez diren profesional edo ikertzaileek, betiere masterreko Batzorde Akademikoak gainbegiratzen badu eta ikertzaileek erakundearen baimena lortuta. Horrek esan nahi du, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, Euskaltzaindiko kideek parte hartu ahal izango dutela ikasle edo doktoregaien prestakuntza jardueretan.

2010eko maiatzean Euskaltzaindiak Euskampus proiektuari atxikitzeko hitzarmen bat sinatu zuen. UPV/EHUK, Tecnalia eta DIPCK bultzatutako proiektu horrek Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa dauka, Espainiako Hezkuntza Ministerioak emana, eta gaur egun haren garapena Euskampus Fundazioaren ardurapean dago. Fundazioa Euskampus proiektuari atxikitako erakundeen bizkarrezurra da, eta lehendik zeuden lankidetzaharremanak sendotzeaz gain, elkarlanerako esparru berriak ere eratzen ditu. Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK abian jarritako elkarlanerako esparru berria.

Euskaltzaindian euren lana egin nahi duten master eta doktoregoko ikasleek bi erakundeotako ordezkari banarekin egin beharko dute lan: batetik, UPV/EHUKo tutore akademikoarekin, eta bestetik, lanaren zuzendaria izango den Euskaltzaindiko kidearekin.

Era berean, Euskaltzaindiak erakundeari loturiko begirale bat izendatuko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, praktika programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin ados jarrita.

Hitzarmena Iñaki Goirizelaia UPV/EHU errektoreak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute. Eurekin batera Nekane Balluerka EHUKo Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea eta Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburua izan dira.

## Fryske Akademyk (Frisiar Akademia)

Abenduaren 18an Euskaltzaindiak eta Fryske Akademyk (Frisiar Akademiak) lankidetzak hitzarmena sinatu dute Bilboko Udaletxean. Europa mailako hizkuntza gutxituen akademiaren arteko sarea sortzea da hitzarmenaren xedeetako bat.

Frisiar Akademiaren izenean Hanno Brand zuzendariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Gainerako euskaltzainak ere izan dira ekitaldian, egun horretan Bilboko Udaletxean egin baitu Euskaltzaindiak abenduko Osoko bilkura.

Esan bezala, Europara begira daude bi akademiak. Europako hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza eta errespetua sustatzea helburu, hizkuntza gutxituen akademiaren arteko elkarlana bultzatu nahi dute. Era berean, Europar Batasuneko erakundeei sare horretako partaideen ordezkariak onar dezaten eskatu nahi diete.

Bestalde, euskara eta frisiara hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon bigarren xede nagusia.

Testuinguru horretan, sinatutako hitzarmena zabaldu nahi dute bi erakundeok. Horretarako, Europa mailako gainerako eremu urriko hizkuntzen akademiak dokumentuarekin bat egin dezaten bultzatuko dute.

Horiek horrela, bi erakundeon arteko lankidetzak euskal eta frisiar hizkuntzen eremuan gauzatuko da: Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak lankidetzak proiektuak sustatu eta garatu nahi dituzte, euskararen eta frisiararen aldeko sustapena bultzatzeko. Hitzarmenaren bidez bi erakundeok hizkuntzen ikerketari nola heltzen dioten ezagutu nahi da; hau da, hizkuntza bien garapenean erabiltzen dituzten teknika eta prozedurak zeintzuk diren eta nola erabiltzen dituzten ezagutzea da helburua.

Bestalde, bi erakundeok lankidetasun-politika bultzatuko dute, ikastaroak, mintegiak, kongresuak eta sinposioak elkarrekin antolatuz eta gauzatuz. Euskararen eta frisiararen egoerari eta bilakaerari buruzko txostenak landu eta sustatuko dituzte.



Euskaltzainak eta Frisiar Akademiako ordezkariak.

Era berean, Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak elkarrekiko lana bultzatuko dute, bietako batek, edota biek batera eginiko argitalpenei laguntza emanez.



Euskaltzaindiaren webguneak 801.324 bisita izan zituen 2015ean. Bestalde, webguneko orriek 3.111.828 bistaratze izan zituzten urte berean. Era berean, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak *Euskal Onomastikaren Datutegia* eta *Hiztegi Batua* izan dira. Hauek dira datuak:

<a href="http://www.euskaltzaindia.net">www.euskaltzaindia.net</a>	2015
1) Bisitak, guztira	801.324
2) web-orrialde bistaratzeak:	
Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	129.110
Hiztegi Batua	689.174
Euskaltzaindiaren arauak	69.925
JAGONET zerbitzua	51.489
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	362.460
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	1.182.131
Argitalpenen katalogoa	23.217
<i>Plazaberri</i> bloga	28.516
Beste guztiak	542.706
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	<b>3.111.828</b>

## 2015EKO BISITA ESTATISTIKAK

Hauek dira Euskaltzaindiaren egoitzan izandako bisitak, 2015ean:

	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	iraila	urria	azaroa	abendua	Guztira
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	21	26	23	17	25	16	19	26	30	21	16	240
<b>Argitalpenak</b>	5	5	4	8	2	6	6	7	3	4	3	53
<b>Onomastika zerbitzua</b>	12	16	5	9	12	9	9	7	19	10	8	116
<b>Zerbitzu orokorrak</b>	4	5	14	0	11	1	4	12	8	7	5	71
<b>AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA</b>	36	15	50	32	31	34	34	29	24	30	21	336
<b>Irakurle gela</b>	17	5	14	21	19	16	21	15	13	20	9	170
<b>Zerbitzu orokorrak</b>	19	10	36	11	12	18	13	14	11	10	12	116
<b>GUZTIRA</b>	57	41	73	49	56	50	53	55	54	51	37	576



Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua PKF ATTEST auditoria etxeak ikuskatu ditu. 2015eko ekitaldiari dagokion txostenean esaten da “2015. urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2015eko abenduaren 31n EUSKALTZAINDIA erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute eta baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren legeriaren arabera, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin”.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta Akademiak daukan ondasunen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideekin batera (Pasiboa).

Aktiboak erakundeak dituen ondasunak (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua...) erakusten ditu.

Pasiboan aktiboan bildutako ondasunen finantzaketa iturriak zehazten dira: erakundearen ondare garbia, hornitzaileak, bankuak...

Urteko Emaitzen Kontuak Euskaltzaindiak erreferentziako ekitaldian izandako diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko aldea ekitaldiaren emaitza da. 2015eko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondoriorik adierazgarrienak:

1.- Euskaltzaindiak ekitaldi orekatua izan du. Jasotako eta gastutako kopuruak berdintsuak izan dira.

2.- Diru-sarreraren zenbatekoari dagokionez, 2015. urtea aurrekoaren antzekoa izan da, bietan diru-sarrerak 2,6 milioi euro ingurukoak izan baitira. Ez dugu ahaztu behar, aitzitik, Akademiaren jarduna sostengatzeko ardura duten administrazio publikoen ekarpenak % 34tik gora murriztu direla 2009 eta 2015 bitartean.

Baliteke diru-sarrerak egungo mailan egonkortuko direla eta, beraz, hurrengo urteetan ez dela igoerarik izango. Egoera honen aurrean Akademiak lehentasunak zehaztu ditu, kostuak doitu ditu eta gastuetako kontu-sail guztietan efizientzian oinarritutako kudeaketa-eredua ezarri du. Hori guztia bere proiektuetarako finantzake-

ta-iturri berriak bilatzearen beharra ahaztu gabe.

3.- Azaldutako zailtasunak gorabehera, Euskaltzaindiak 2015. urterako aurreikusitako programa bete du. 2016an ere horretan segitu nahi du, ematen dituen zerbitzuen, batzordeen eta bideratzen dituen ikerketa proiektuen birtartez gizarteari balioa emanaz, horiek guztiak egunetik egunera gero eta kalitate handiagokoak izan daitezen eta ahalik eta herritar eta erakunde gehienengana irits daitezen.



## Euskaltzaindiaren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua

### Balantzea (Eurotan)

AKTIBOA	2015/12/31		2014/12/31		PASIBOA	2015/12/31		2014/12/31	
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>808.565</b>	<b>31.659</b>	<b>31.659</b>	<b>31.659</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.573.086</b>	<b>1.602.816</b>	<b>1.573.086</b>	<b>1.602.816</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	<b>22.517</b>	<b>31.659</b>	<b>31.659</b>	<b>31.659</b>	<b>Fondo propioak</b>	<b>1.187.056</b>	<b>1.188.969</b>	<b>1.187.056</b>	<b>1.188.969</b>
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	7.167	9.579	9.579	9.579	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.188.969	1.190.111	1.188.969	1.190.111
Aplikazio informatikoak	15.350	22.080	22.080	22.080	Ekitaldiko soberakina	(1.911)	(1.142)	(1.911)	(1.142)
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>755.566</b>	<b>825.846</b>	<b>825.846</b>	<b>825.846</b>	<b>Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak</b>	<b>386.028</b>	<b>413.847</b>	<b>386.028</b>	<b>413.847</b>
Lurrak eta eraikuntzak	561.422	594.107	594.107	594.107					
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	194.144	231.739	231.739	231.739					
<b>Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>30.482</b>	<b>30.482</b>	<b>30.482</b>	<b>30.482</b>					
Beste aktibo finantzarioak	30.482	30.482	30.482	30.482					
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.007.342</b>	<b>1.001.349</b>	<b>1.001.349</b>	<b>1.001.349</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>242.821</b>	<b>286.600</b>	<b>242.821</b>	<b>286.600</b>
<b>Izakinak</b>	<b>13.457</b>	<b>15.053</b>	<b>15.053</b>	<b>15.053</b>	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>5.898</b>	<b>11.078</b>	<b>5.898</b>	<b>11.078</b>
					Beste pasibo finantzarioak	5.898	11.078	5.898	11.078
<b>Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak</b>	<b>12.945</b>	<b>35.205</b>	<b>35.205</b>	<b>35.205</b>	<b>Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>236.923</b>	<b>275.522</b>	<b>236.923</b>	<b>275.522</b>
<b>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>749.933</b>	<b>545.942</b>	<b>545.942</b>	<b>545.942</b>	Hornitzaileak	63.332	116.668	63.332	116.668
Hainbat zordun	65.804	40.854	40.854	40.854	Langileria	49.125	25.194	49.125	25.194
Zordunak, Herri Aginteak	684.129	505.088	505.088	505.088	Hartzekodunak, Herri Aginteak	124.466	133.660	124.466	133.660
<b>Epe laburreko finantza inbertsioak</b>	<b>680</b>	<b>680</b>	<b>680</b>	<b>680</b>					
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>230.327</b>	<b>404.549</b>	<b>404.549</b>	<b>404.549</b>					
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.815.907</b>	<b>1.889.416</b>	<b>1.889.416</b>	<b>1.889.416</b>	<b>PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA</b>	<b>1.889.416</b>	<b>1.971.811</b>	<b>1.889.416</b>	<b>1.971.811</b>

## Galdu-Irabazien kontua (eurotan)

<b>EKITALDIA</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
<b>Erakundearen berezko jardueraren sarrerak</b>	<b>2.618.204</b>	<b>2.596.533</b>
Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak	74.881	62.852
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.543.323	2.533.681
<b>ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa</b>	<b>(1.596)</b>	<b>(2.308)</b>
<b>Ustiapeneko bestelako sarrerak</b>	<b>-</b>	<b>4</b>
<b>Pertsonal gastuak</b>	<b>(1.530.394)</b>	<b>(1.261.309)</b>
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.215.054)	(1.043.482)
Gizarte-zamak	(315.340)	(291.824)
Hornidurak	-	73.997
<b>Ustiapeneko bestelako gastuak</b>	<b>(1.008.364)</b>	<b>(1.224.437)</b>
Kanpoko zerbitzuak	(1.008.083)	(1.223.859)
Tributuak	(797)	(113)
Merkataritza eragiketarik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(516)	(465)
<b>Ibilgetuen amortizazioa eta hondatzea</b>	<b>(106.594)</b>	<b>(128.564)</b>
<b>Ekitaldiko soberakinari intsuldatutako kapitaleko diru-laguntzak</b>	<b>27.826</b>	<b>21.799</b>
<b>USTIAPENENKO SOBERAKINA</b>	<b>(918)</b>	<b>1.718</b>
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>126</b>	<b>268</b>
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	126	268
Horniduren eguneratzea	-	-
<b>Gastu finantzarioak</b>	<b>(1.119)</b>	<b>(3.128)</b>
Hirugarrenetikiko zorrenak	(1.119)	(3.128)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA</b>	<b>(993)</b>	<b>(2.860)</b>
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>(1.911)</b>	<b>(1.142)</b>



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE